

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Donostiako Udala

Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián

2021





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA	11
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	11
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	12
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	13
III.1 Udala eta erakunde autonomoak.....	13
III.1.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	13
III.1.2 Pertsonala.....	13
III.1.3 Kontratazioa	13
III.1.4 Berankortasuna.....	15
III.2 Enpresa erakunde publikoak eta sozietate publikoak	15
III.2.1 Kontratazioa	15
III.2.2 Beste alderdi batzuk	16
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	17
V. URTEKO KONTUAK	19
V.1 Udala.....	19
V.2 Erakunde autonomoak	22
V.3 Sozietate publikoak eta enpresa entitate publikoak	24



ERANSKINAK	27
A.1 Erakunde fiskalizatuaren izaera eta araudi aplikagarria	27
A.2 Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak	28
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	29
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	30
A.5 Ondare-sarrerak.....	31
A.6 Inbertsio errealen besterentzea	31
A.7 Pertsonaleko gastuak.....	32
A.8 Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontratazioa	35
A.9 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	36
A.10 Aktibo ez-korrontea.....	37
A.11 Pasibo finantzarioak.....	39
A.12 Aurrekontuko zordunak.....	40
A.13 Eragiketa ez-aurrekontukoak	40
A.14 Konpromiso-kredituak	42
A.15 Kontratazioa	43
A.16 Enpresa erakunde publikoak eta sozietate publikoak	46
A.16.1 Pertsonala.....	46
A.16.2 Dirulaguntzak	47
A.16.3 Kontratazioa.....	47
A.16.4 Zorpetzea	49
ALEGAZIOAK.....	51



ABREVIATURAS	59
I. INTRODUCCIÓN	61
II. OPINIÓN	63
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad	63
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	64
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	65
III.1 Ayuntamiento y organismos autónomos.....	65
III.1.1 Presupuesto y contabilidad	65
III.1.2 Personal.....	65
III.1.3 Contratación.....	65
III.1.4 Morosidad	67
III.2 Entidades públicas empresariales y sociedades públicas	67
III.2.1 Contratación.....	67
III.2.2 Otros aspectos	68
IV. ANÁLISIS FINANCIERO.....	69
V. CUENTAS ANUALES.....	71
V.1 Ayuntamiento.....	71
V.2 Organismos autónomos.....	74
V.3 Entidades públicas empresariales y sociedades públicas	76



ANEXOS	79
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y normativa aplicable	79
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias	80
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	81
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	82
A.5 Ingresos patrimoniales	83
A.6 Enajenación de inversiones reales	83
A.7 Gastos de personal	84
A.8 Compra de bienes corrientes y servicios	87
A.9 Transferencias y subvenciones concedidas	88
A.10 Activo no corriente	89
A.11 Pasivos financieros	91
A.12 Deudores presupuestarios	92
A.13 Operaciones no presupuestarias	92
A.14 Créditos de compromiso	94
A.15 Contratación	95
A.16 Entidades públicas empresariales y sociedades públicas	98
A.16.1 Personal	98
A.16.2 Subvenciones	99
A.16.3 Contratación	99
A.16.4 Endeudamiento	101
ALEGACIONES	103

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 6a

Vitoria-Gasteiz, 6 de noviembre de 2023



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

AZL	Prozedura Ireki Sinplifikatua.
BOE	Babes Ofizialeko Etxebizitza.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EHJAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia.
EIN	Estatistikako Institutu Nazionala.
ELH	Elkarrizketa Lehiakor Harmonizatua.
EPE	Enplegu Publikoaren Eskaintza.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
HLBGZ	Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga.
KEAO	Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa.
LPZ	Lanpostuen zerrenda.
LUO	Lurraren Udal Ondarea.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
PGPN	Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua.
PI	Prozedura irekia.
PIH	Prozedura Ireki Harmonizatua.
PMH	Prozedura murriztu harmonizatua.
PNH	Prozedura Negoziatu Harmonizatua.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtsa.





I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Donostiako Udalaren 2021eko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio-lana mamitu du.

HKEEk gauzatutako Donostiako Udalaren Kontu Orokorraren aurreko fiskalizazio-lana 2018ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkotasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak Udalaren, bere erakunde autonomoen eta sozietate publikoaren -zeinetan udala kapital sozialaren % 50etik gorako ehunekoaren jabe baita- balantzea, ekonomia eta ondarearen emaitza-kontua eta memoria besarkatzen ditu, baita Udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioa ere.

Enpresa erakunde publikoen eta sozietate publikoen kontuei dagokienez, gure lana kanpoko enpresek gauzatutako auditoretzako txostenak aztertzea izan da eta horretarako, beharrezko iritzitako proba osagarriak edo auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.

- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Alabaina, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak Txosten honen III. Idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Donostiako udalerriak 186.102 biztanle zituen 2021eko urtarrilaren 1ean Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera eta bere antolamenduan, Udalaz gain honako erakunde autonomo, enpresa erakunde publiko eta sozietate publiko hauek barne hartzen ditu:

- DonostiaTIK erakunde autonomoa: Haren helburua da udal antolamendu osoari telekomunikazio eta informatika zerbitzuak ematea.
- Kirolaren Udal Patronatua erakunde autonomoa: Helburua da kirol instalazioak eraikitzea eta kirol-jarduerak, kirol federatua eta lehiaketako kirola eta kirol ikuskizunak kudeatu eta sustatzea.
- Musika eta Dantzaren Udal Eskola erakunde autonomoa: Helburua da musika eta dantzako irakaskuntza ez arautua.
- Donostiako Etxegintza enpresa erakunde publikoa (aurrerantzean, Etxegintzako EEPa): Helburua udal etxebizitzaren kudeaketa eta Udalak agindutako hirigintzako jarduerak gauzatzea da.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Donostia Kultura enpresa erakunde publikoa (aurrerantzean, Kulturako EEPA): Helburua da kultura eta jaietan udalaren eskumenak zuzenean eta modu deszentralizatuan kudeatzea. Erakundeak ondoko sozietate hauen % 100eko jabetza du:
 - San Telmo Museoa S.A.: Sozietate honen helburua da kultura-ondarearekin lotutako programa eta jarduerak kudeatzea.
 - Victoria Eugenia Antzokia S.A.: Sozietate honen helburua da arte eszeniko, musika, dantza eta ikusi-entzumenezkoekin loturiko programa eta kultura jarduerak kudeatzea.
- Eguskiza Higiezinaren Sozietatea, S.A.: Sozietate honen helburua da Babes Ofizialeko Etxeak eraikitzea eta horrekin lotutako eragiketak gauzatzea (% 100 udal jabetzakoa) Sozietate honek ez du jarduerarik.
- Donostiako Tranbia Konpainia S.A.: Sozietate honen helburua da bidaiarien eta salgaien garraioa ustiatzea (% 100 udal jabetzakoa).
- Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.: Sozietate honen helburua da errausketa eta hilerriko zerbitzuak kudeatu eta ustiatzea (% 100 udal jabetzakoa).
- Donostiako Sustapena S.A.: Sozietate honen helburua da ekoizpen- eta enplegu-sistemaren garapena sustatzen lagunduko duten jarduera ekonomiko eta sozialak sustatu, garatu eta indartzea (% 100 udal jabetzakoa).
- Donostia Turismoa S.A.: Sozietate honen helburua da turismoaren garapena bultzatzen lagunduko duten jarduera ekonomiko eta sozialak sustatu, garatu eta indartzea (% 100 udal jabetzakoa).
- Anoeta Kiroldegia S.A.: Sozietate honen helburua da Anoetako kirol-eremuko lanak eta zerbitzuak sustatu eta kudeatzea (% 100 udal jabetzakoa).
- La Perla del Océano Bainuetxearen Sozietatea S.L.: Sozietate honen helburua da “La Perla del Océano” bainuetxearen eraikina zaharberritu eta ustiatzea eta beste bainuetxe batzuk eraiki eta ustiatzea (% 99,99 udal jabetzakoa).

Gainera, honako mankomunitate eta partzuergo hauen atal da: San Markoko Mankomunitatea (hiri hondakin solidoen kudeaketa); Añarbeko Uren Mankomunitatea (uraren ziklo osoaren kudeaketa); Miramar Jauregia Partzuergoa (kultura jarduerak); Haurreskolak Partzuergoa (haur eskolen kudeaketa); eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Partzuergoa (garraio zerbitzua).



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

UDALA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK

1. Udalak eta haren erakunde autonomoek uste zuten 2021eko ekitaldian giza baliabideak arrazionalizatzeko plana onartu aurretik 22 langile publikori ordaindutako erretiro aurreratuagatiko primak (milioi bat euro) PFEZtik salbuetsitako lan-etekinak zirela. Alabaina, ez dira betetzen Langileen Estatutuaren Legeko Testu Bateginaren 51. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak (ikus A.7).
2. 2021eko ekitaldian, Udalak Txofre plazako lurpeko aparkalekuaren zerbitzu publikoaren emakida gauzaten jarraitu zuen enpresa esleipendunaren bitartez, zeinaren kontratua 2016ko otsailaren 19an amaitu baitzen; kontratazioa arautu zuten pleguetan, baina, ez zen luzapenik aurreikusi. 2021eko ekitaldian ustiapen-kanon gisa aitortutako diru-sarrerak 396.120 eurorenak izan ziren (ikus A.5).
3. Udalak 17,3 milioi euroren gastua egin zuen 2021eko ekitaldian, kontratuak mugaeguneratuta zituzten eta luzatu ezin ziren 4 zerbitzuri zegozkienak (SPKLren 29.4 artikulua) (ikus A.15).
4. Udalak estolderia-sareko garbiketa-zerbitzuan eta konponketa txikietan 1,9 milioi euroren gastua egin zuen 2021eko ekitaldian; kontratu hori 2019ko maiatzaren 31n amaitu zen. Geroko kontratazio-prozeduraren 2019ko urriaren 26ko adjudikazioa Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren ebazpen bidez deuseztatu zen 2020ko otsailaren 3an, esleipendunaren eskaintza baztertuta. 2020ko urriaren 15ean, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak ebazpena betearazteko eskatu zion Udalari, baina Udalak ez zuen halakorik bete (SPKLren 59.2 artikulua) (ikus A.15).
5. Astiñeneko zubia eraikitzeke obren zuzendaritza fakultatiboari laguntza teknikoa emateko kontratua 2019ko otsailean esleitu zen, eta 2019-2021 aldian 174.368 euroren egikaritza izan zuen. 2020ko azaroan, Udalak kontratu honen esleipendunak idatzitako obren proiektu aldatua onartu zuen, eta horren kostua fakturazio horretan sartu zen; horrek guztiak pleguetan jasotako kontratu-xedea aldatu zuen eta SPKLren 205. artikulua hautsi (ikus A.15 9. espedientea).

ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK

6. Etxebizitzaren enpresa erakunde publikoak 76.636 euroren gastua egin zuen 2021eko ekitaldian, babes ofizialeko etxebizitzetako igogailuen mantentze-zerbitzuari zegokiona; ordea, kontratua iraungita zegoen eta ezin zen luzatu (SPKLren 29.4 artikulua) (ikus A.16.3).

Epaitegi honen iritzira, Donostiako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, letik 6ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2021eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Donostiako Udalaren Gastu Orokorren Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak 2021eko abenduaren 31n:

KONTZEPTUA	GODG	Euroak milakotan		
		ONDAREKOA		
		AKTIBOA	PASIB.	P. GARBIA
A.4 Bretxa eraikinaren finantzaketa GODGra desbideratzea	(2.068)	-	-	-
A.6 Eskuzaitzeta urbanizazioaren finantzaketa GODGra desbideratzea	(2.827)	-	-	-
A.10 San Bartolomé Muinoa S.A.: partaidetzaren balio garbia.....	-	(13.576)	-	(13.576)
A.11 Erabili gabeko maileguak.....	(27.960)	(27.960)	(27.960)	-
A.13 Anoeta Kiroledegia aurrerapena: Anoeta estadioa birmoldatzea	(3.300)	-	-	-
A.13 2021ean jaulkitako faktura kontabilizatu gabeak.....	-	1.478	3.264	(1.786)
GUZTIRA	(36.155)	(40.058)	(24.696)	(15.362)

2. Udalaren Egoera Balantzeko Ibilgetu ez finantzarioaren eta Egoera bereziko ondarearen zenbatekoek 2021eko abenduaren 31n ez dute data horretan inbentarioan jasotako ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen (ikus A.10). Erakunde autonomoek ez dute euskarri egokirik 2021eko abenduaren 31ko balantzearen ibilgetuaren zenbatekoek ondasunen eta eskubideen benetako egoera islatzen duten jakiteko.
3. Udalaren Egoera Balantzeko ibilgetu finantzarioek 2021eko abenduaren 31n 3,2 milioi euro barne hartzen dituzte Eguskiza Higiezinaren Sozietatea S.A.aren erosketa kostuagatik. Ez dago sozietatearen aktiboa osatzen duten lursailen baloraziorik eta honenbestez, ez dakigu beharrezkoa ote litzatekeen aipatutako zenbatekoaren gainean baloraziozko zuzenketarik egitea.

Epaitegi honen iritzira, letik 3ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Donostiako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2021eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2021ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 UDALA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK

III.1.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren proiektua 2021eko otsailaren 4an onartu zuen, aurrekontuko araudiak ezartzen duen epearekiko 3,5 hilabeteko atzerapenarekin (ikus A.2).
- Udalak, urteko aurrekontuetan, Lurraren Udal Ondareari lotutako baliabide eta helburu aurreikusiei buruzko informazio xehatua jasotzen du, eta aurrekontua betearazteko udal-arauan, beste jarduera batzuetarako kreditu-transferentziak arautzen ditu. Beraz, komenigarria da aurreikuspen horien jarraipena egitea aurrekontua gauzatzean, eta likidazioan jasotzea.

III.1.2 PERTSONALA

- Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko ekitaldirako Administrazioako langileen soldata igoeren gaitan hartutako erabakiak ez dira GAOn argitara eman (ikus A.7).
- Udalak eta mendeko entitate guztiek 2021eko ekitaldian langileei guztira 1,9 milioi euroren produktibitate-osagarri ez finkagarri bat ordaindu die, osagarri finko bat eta beste osagarri aldagarri bat dituen, lanaldiaren egiazko denboraren arabera (ikus A.7 eta A.16.1). Ordainsari kontzeptu hau funtzionario bakoitzak bere lanpostuari atxikitako egitekoak betetzean erakutsitako aparteko etekin, interes edo ekimena saritzeko erabili beharko litzateke.

III.1.3 KONTRATAZIOA (IKUS A.15)

Ohar orokorrak

- Erakunde autonomoek ez dute kontratazio publikoko jarduera programatzen urteko edo urte anitzeko kontratazio-plan baten bidez. Plan horrek, gutxienez, erregulazio harmonizatuko kontratuak jaso beharko lituzke, eta horren berri eman kontratatzailearen profilean aldez aurretik informazio-iragarki baten bidez.
- Kontratatzailearen profilean argitaratutako informazioak, adjudikazioduna aldi baterako enpresa-elkarte bat denean, enpresa parte-hartzaileen izenaz gain, horietako bakoitzaren ehuneko-partaidetza ere jaso behar du.
- Udalak adjudikatutako obra-kontratuetan, harrera kontratuaren arduradunak, kontratista adjudikaziodunak eta obra-zuzendariak formalizatu zuten aktan, eta ez zen bertaratu kontu-hartzailetzako organoaren inongo ordezkariarik.



Espedienteak

Udalak eta haren erakunde autonomoek 2019-2021 aldian eta aurreko ekitaldian formalizatutakoak izan arren 2021ean gauzatutako kontratazio-espedienteak aztertuta (ikus A.15), honako alderdi hauek hauteman dira:

- Udalak eta DonostiaTIKek 23 milioi euroan adjudikatutako 4 kontraturen pleguek ez dute ezarri neurritz kanpoko eskaintza baxuegiak identifikatzeko parametro objektiborik (2, 3, 4 eta 17. espedienteak).
- Udalak 62,8 milioi euroren zenbatekoarekin adjudikatutako 6 kontratu gehieneko epea gaindituta egin da, 1 eta 5,5 hilabete bitartean (2, 3, 4, 11, 12 eta 13. espedienteak).
- Iztuetako azpiko pasabidearen obra-kontratua, Udalak 5,9 milioi euroan adjudikatua, ADIF-Tren-azpiegituren administratzailearen nahitaezko baimena lortu aurretik adjudikatu zen (4. espedientea).
- Astiñeneko zubia eraikitzeke kontratuaren hasieran aurreikusitako 15 hilabeteko epea, Udalak 3 milioi euroan esleitua, 29 hilabetez luzatu da. Luzapen horren arrazoia, funtsean, zutabeen tamaina ordezkatzeko eta gas-hodiak birkokatzea izan zen, eta horrek proiektu aldatu bat idazteko beharra ekarri zuen. Obra-zuzendaritzak soluzio tekniko berria baliozkotu zuenetik kontratu-aldaketa onartu arte 15 hilabete igaro ziren. Kontratu-aldaketa hori onartu zenean, epea ez zen behar hainbatekoa zubiaren egitura berria diseinatu, baliozkotu eta fabrikatzeko. Obra 6 hilabetez egon zen egikaritu gabe, eta 2021eko irailean beste 8 hilabetez luzatu zen epea (22. espedientea).
- Udalak 18,3 milioi euroan adjudikatutako 2 obra-kontratutan, EBAOn ez dira argitaratu pleguetan aurreikusi ez diren 4 kontratu aldatuen iragarkiak, 4,6 milioi euroko zenbatekodunak (1 eta 4. espedienteak).
- Kirolen Udal Patronatuak 5,6 milioi euroan esleitutako kirol ikastaroetako eta eskolako igeriketako zerbitzu-kontratuan, pleguetan aurreikusitako 999.426 euroko kontratu-aldaketa, besteak beste Altzako behin-behineko gimnasioan gauzatutako zerbitzuek eragindakoa, 2020ko otsailean onartu zen, instalazio horiek ireki eta urtebetera.

Gainera, 2021eko ekitaldiko beste gastu batzuen egikaritzea aztertzean, honako hauek ikusi ditugu:

- Udalak zuzenean egin ditu 53.739 euroren gastuak hirugarren batekin, 11 udal-eraikinetan dauden berokuntza-sistemak prebentzioz mantentzeko. Emandako zerbitzuak homogeneousak direnez, gomendagarria litzateke lizitazio-prozedura bat izapidetzea, eta horrek, gutxienez, ireki sinplifikatu laburtua izan beharko luke.
- Udalak 2 kontratu txiki adjudikatu zizkien hirugarren batzuei, guztira 76.186 euroren zenbatekoarekin, Alderdi Ederreko Lehoinen lorategia birgaitzeko obrak gauzatzeko. Obra horien artean, ureztatze-sare automatizatu bat instalatzea eta lorategiaren paisaia birgaitzea daude, hurrenez hurren. Bi obrak unitate funtzional bakarrean daude jasoak, eta, beraz, gutxienez prozedura ireki sinplifikatu laburtu bat izapidetu behar zen.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Udalak obra-proiektuak idazteko 22 kontratu txiki adjudikatu zituen 3 hirugarrenekin, guztira 284.682 euroren zenbatekoarekin. Kontratu horiek, banaka hartuta prozedura horren bidez kontratatzeke muga errespetatzen badute ere, komenigarria litzateke multzokatzea, lehia handiagoa bermatuko duten prozeduren bidez lizitatzeko.

III.1.4 BERANKORTASUNA

- Diruzaintzako hiru hilean behingo txostenek, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 30/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legean aurreikusitakoek, agerian uzten dute Donostiako Udalean 2021eko ekitaldian 11,1 milioi euro ordaindu direla fakturretan. Faktura horietan, erregistratu zirenetik 60 egunetik gorako epea igaro da, eta ordainketa guztien % 8 dira.

III.2 ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK

III.2.1 KONTRATAZIOA

Ohar orokorrak

- Enpresa erakunde autonomoek eta sozietate publikoek ez dute kontratazioko urteko edo urte anitzeko kontratazio-plan bat formulatzen. Plan horrek, gutxienez, erregulazio harmonizatuko kontratuak jaso beharko lituzke, eta horren berri eman kontratatzailearen profileen alde aurretik informazio-iragarki baten bidez.

Espedienteak

Entitate hauek 2019-2021 aldian eta aurreko ekitaldietan formalizatutakoak izan arren 2021ean gauzatutako kontratazio-espeditentak aztertuta (ikus A.15), honako alderdi hauek hauteman dira:

- Donostiako Tranbia Konpainia S.A.k adjudikatutako 4 kontratutan eta Donostiako Sustapena S.A.k adjudikatutako beste batean, guztira 26,3 milioi euroan esleitutakoetan, gomendagarria da proposamen ekonomikoari dagokion irizpidean puntu guztiak banatzea ahalbidetuko duten formulak erabiltzea, proportzionaltasun sinpleko formula bat erabili beharrean (3, 4, 5, 6 eta 8. espeditentak).
- Kulturako enpresa erakunde publikoak 228.448 euroan esleitutako kontratu baten adjudikazioa gehienez 5 hilabeteko epea gaindituta egin da (1. espeditentea).
- Kulturako enpresa erakunde publikoaren 2 kontratutan, Donostiako Tranbiaren Konpainia, S.A.ren 2tan eta Donostiako Sustapena S.A.ren batean, guztira 10,2 milioi euroren zenbatekoan adjudikatutakoetan, ez dira adjudikazio-ebazpenetan sartu enpresa esleipendunek kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikagarritzat jotzen hitzarmen kolektiboak (1, 2, 4, 6 eta 8. espeditentak).



III.2.2 BESTE ALDERDI BATZUK

- Enpresa entitate publikoek eta sozietate publikoek urtero beren kontuen kanpoko auditoria kontratatzen dute, finantza alderdiei dagokienez soilik. Horren ondorioz, kontu horien gainean ez dira kontu hartzailetzaren gainerako kontrol moldeak gauzatzen: legezketasuna, efikaziaren eta efizientziaren kontrol ekonomikoa eta antolamenduzkoa, zeinak Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko entitateetan barne kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuan erabakitakoari jarraikiz gauzatu beharrekoak baitira.
- Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak eta Donostiako Sustapena S.A., Donostia Turismoa S.A., Anoeta Kiroldedia S.A. eta La Perla del Océano Bainuetxea S.L. sozietateek ez dute beren web-orrialdeetan gardentasun-ataririk edo Udalaren atarirako estekarik, zeinetan argitaratuko baitira -abenduaren 9ko Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legean xedatutakoaren arabera- erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa ez ezik, bai eta ekonomia- eta finantza-informazioa ere, auditatutako urteko kontuak esate baterako.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldian likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan dago zehaztua:

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2019 (*)	2020 (*)	2021	2019	2020	2021
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	151.360	143.623	151.692	808	763	806
Transferentzia eta dirulaguntza korr. (4. kap.).....	152.760	143.391	170.423	815	762	906
Ondare sarrerak (5. kap.).....	5.367	4.268	4.643	29	23	25
A. Sarrera korronteak	309.487	291.282	326.758	1.652	1.548	1.737
Langile gastuak (1. kap.).....	80.909	83.400	84.838	432	443	451
Ondasun korronteen erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	95.338	92.346	96.225	509	491	511
Transferentzia eta dirulaguntza korr. (4. kap.).....	89.525	107.529	104.403	478	571	555
B. Funtzionamendu-gastuak	265.772	283.275	285.466	1.419	1.505	1.517
Aurrezki gordina (A-B)	43.715	8.007	41.292	233	43	220
Gastu finantzarioak (3. kap.).....	(665)	(610)	(462)	(4)	(3)	(2)
Emaitza korrontea	43.050	7.397	40.830	229	40	218
Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	(14.561)	(13.505)	(34.667)	(78)	(72)	(184)
Aurrezki garbia	28.489	(6.108)	6.163	151	(32)	34
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	42.170	17.364	27.701	225	92	147
Jasotako kapital dirulaguntzak (7. kap.).....	867	2.044	2.248	5	11	12
Inbertsio errealak (6. kap.).....	(47.585)	(31.937)	(45.518)	(254)	(170)	(242)
Emandako kapital dirulaguntzak (7. kap.).....	(16.031)	(9.500)	(6.982)	(86)	(50)	(37)
Kapitalezko eragiketen emaitza	(20.579)	(22.029)	(22.551)	(110)	(117)	(120)
Eragik. ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.)	22.471	(14.632)	18.278	119	(77)	98
Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina	134.336	129.914	99.605	717	690	530
Zorpetzea	107.474	120.437	72.770	573	640	387
Erabilitako zorpetzea	78.572	79.477	44.810	419	422	238

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera korronteak: 2021eko ekitaldian kitatutako sarrera arruntak % 12,2 hazi dira 2020ko ekitaldiaren aldean eta % 5,6, berriz, 2019koaren aldean. Hona hemen aldakuntza nagusiak:

- **Zergak, tasak eta bestelako sarrerak:** 2021ean azpimarratzekoak dira jarduera ekonomikoa duten establezimenduetako hondakinak biltzeko eta ezabatzeko tasan 4,2 milioi euroren igoera, eta espazio publikoaren okupazio-tasan 2,1 milioi eurorena. Bariazio hori, batez ere, 2020ko ekitaldiko erroldak 2021ean kontabilizatzearen ondorio da; errolda horiei alarma-egoeraren ondorioz ezohiko hobaria eman zitzaien eta geroratu egin ziren
- **Transferentziak eta dirulaguntza korronteak:** Igoera Udal Finantzaketarako Foru Funtsean izan da, 33 milioi egin baitu gora, Covid-19ak eragindako ondorio ekonomikoen ondoriozko zerga-bilketaren jaitziera gainditu ondoren, eta, gainera, 15,1 milioi handitu da 2019an aitortutako diru-sarreraren aldean.



Funtzionamendu-gastuak: Aitortutako obligazioak % 0,8 igo dira 2020ko ekitaldiaren aldean eta ez dute aldaketarik izan 2019koarekiko. Hona hemen bariazio esanguratsuenak:

- **Pertsonaleko gastuak:** Aurrekontuko kapitulu hori % 1,7 igo da, 2021eko ekitaldirako onartutako soldata-igoeraren ondorioz eta erretiro aurreratuengatik kalte-ordainengatik gastu handiagoaren ondorioz, erretiro horiek hartu zituzten langileen kopurua handiagoa izan baita.
- **Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontratazioa:** % 4,2ko igoera izan da, kontuan hartuta 2020an hainbat zerbitzuren gastuak behera egin zuela alarma-egoeran jarduera eten behar izateagatik. 2019arekin alderatuta, igoera % 0,9koa izan da.
- **Transferentziak eta dirulaguntza korronteak:** Aurrekontuko kapitulu honetan, nabarmentzekoa da Donostiako Tranbia Konpainia S.A.ri egindako ekarpenen bariazioa. 2021ean, sozietate honetan, transferentziak 2,6 milioi euro murriztu ziren 2020aren aldean, baina 2019koak baino 8,8 milioi euro handiagoak izan ziren. Aldaketa horiek gizartearen oreka finantzarioari eusteko beharraren ondorio izan dira, Covid-19aren ondorioz zerga-bilketan eragin negatiboa izan ondoren.

Aurrezki gordina eta garbia: Aurrezki gordina -41,3 milioi euro- 2020koaz lehenagoko ekitaldietan lortutakoaren antzeko mailara iritsi da. Aurrezki garbia, berriz, 6,2 milioi euro izan da, finantza-maileguren 22,5 milioi euroko amortizazio aurreratuaren ondoren.

Kapital-eragiketen emaitza: Kapital-eragiketen emaitzak antzeko zifrak eman ditu azken 3 ekitaldietan eta negatiboak izan dira; 2021eko ekitaldikoa 22,6 milioi izan da.

Zorpetzea: Udalak 2021eko abenduaren 31n erabilitako zor maila 34,7 milioi euro gutxitu da. Erabilitako zorra ekitaldian likidatutako sarrera arrunten % 13,7 da. Gainera, 2019ko eta 2020ko ekitaldietan baimendutako maileguak, 28 milioi eurorenak, erabiltzeke daude 2021eko abenduaren 31n. Gainerako erakundeei dagokienez, Etxebizitzako EEPak eta Donostiako Tranbiaren Konpainia S.A.k Udalak abalaturako zorra aurkeztu dute, guztira 81,4 milioi eurorena 2021eko abenduaren 31n, eta ekitaldian 3,4 milioi euro gehitu da.

Diruzaintza Geldikina: 2021eko ekitaldia 99,6 milioi euroren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinarekin (GODG) likidatu da. Ordea, HKEE honek proposatutako doikuntzak aintzat hartuz gero, magnitude horrek 63,5 milioi euroren saldoa izango luke, 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorren fiskalizazioan izandako Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikin doituaren antzekoa, 63,3 milioi euro.

Ondorioa: Udalak 2021ean aurrezki gordina 2020ko ekitaldi aurretik zuen mailara igo du eta zor-maila murriztu du.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE		KOBRA.	GABEA	EXEK.	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOBRA.				
1 Zerga zuzenak.....	A.3	80.235	-	80.235	80.998	74.991	6.007	110		
2. Zeharkako zergak.....	A.3	5.500	-	5.500	5.110	4.137	973	93		
3. Tasak eta bestelako sarrerak.....	A.3	65.108	58	65.166	65.584	51.809	13.775	101		
4. Transferentzia korranteak.....	A.4	147.091	17.126	164.217	170.424	151.200	19.224	104		
5. Ondare-sarrerak.....	A.5	5.015	-	5.015	4.643	3.647	996	93		
6. Inbertsio errealen besterentzea.....	A.6	20.456	8.598	29.054	27.701	26.220	1.481	95		
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.4	5.500	660	6.160	2.248	1.857	391	36		
8. Aktibo finantzarioak.....	A.10	-	131.111	131.111	1.193	1.193	-	(*)-		
9. Pasibo finantzarioak.....		12.982	-	12.982	-	-	-	-		
GUZTIRA		341.887	157.553	499.440	357.901	315.054	42.847	(*) 97		

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza-geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.		ORDAIN.	GABEA	EXEK.	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.				
1 Pertsonaleko gastuak.....	A.7	85.980	162	86.142	84.838	84.837	1	98		
2. Ondasun korranteen eta zerbitz. kontrat.....	A.8	98.628	13.594	112.222	96.225	95.428	797	86		
3. Gastu finantzarioak.....		1.029	(378)	651	462	462	-	71		
4. Transferentzia korranteak.....	A.9	102.956	11.470	114.426	104.403	91.945	12.458	91		
5. Kred. glob. eta bestel. ustekabeak.....		355	(177)	178	-	-	-	-		
6. Inbertsio errealak.....	A.10	34.217	96.533	130.750	45.518	44.140	1.378	35		
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.9	5.740	13.849	19.589	6.982	6.391	591	36		
9. Pasibo finantzarioak.....	A.11	12.982	22.500	35.482	34.667	34.667	-	98		
GUZTIRA		341.887	157.553	499.440	373.095	357.870	15.225	75		

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.		KOBRA./	AZKEN
		ZORRA	BALIOG.		
Zordunak.....	A.12	104.013	(16.915)	32.864	54.234
Hartzekodunak.....		12.587	(163)	11.521	903
GUZTIRA			(16.752)		



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak	357.901
Obligazio aitortuak	(373.095)
Eskubideen baliogabetzea aurrekontu itxietan	(16.915)
Obligazioen baliogabetzea aurrekontu itxietan.....	163
AURREKONTUAREN EMAITZA	(31.946)
Diruzaintza-geldikinarekin finantzatutako obligazioak	65.297
Finantzaketako desbideratzeak.....	1.301
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	34.652

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza	53.224
Aurrekontuko zordunak.....	97.081
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.13).....	8.803
Aplikatzeko dauden ordainketak	293
Aurrekontuko hartzekodunak	(16.128)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak (ikus A.13).....	(23.312)
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoa (ikus A.12)	(19.878)
DIRUZAINZA GELDIKINA	100.083
Atxikitako finantzaketa-soberakina.....	(478)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA	99.605

ZORPETZEA (ikus A.11)	Euroak milakotan
Erabilitako zorra 21.12.31n.....	44.810
Erabili gabeko zorra 21.12.31n	27.960
GUZTIRA	72.770

KONPROMISO KREDITUEN EGOERA (ikus A.14)	Euroak milakotan				
	2022	2023	2024	2025	GUZTIRA
6. Inbertsio errealak.....	16.651	4.551	8.551	1.302	31.055
7. Kapitalezko transferentziak.....	3.539	3.797	3.638	-	10.974
GUZTIRA	20.190	8.348	12.189	1.302	42.029

2022KO EKITALDIRA TXERTATUTAKO KREDITUEN GELDIKINAK	Euroak milakotan			
	AURREK.	A	D	GUZTIRA
1. Pertsonaleko gastuak.....	-	4	10	14
2. Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontratazioa.....	-	371	9.606	9.977
4. Transferentzia korronteak	-	796	6.838	7.634
5. Kred. glob. eta bestel. ustekabeak	-	79	-	79
6. Inbertsio errealak.....	22.300	8.972	37.042	68.314
7. Kapitalezko transferentziak.....	521	1.890	8.890	11.301
GUZTIRA	27.821	12.112	62.386	97.319



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEA 2021EKO ETA 2020KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	ERANSK.	21.12.31	20.12.31		ERANSK.	21.12.31	20.12.31
AKTIBO EZ-KORRONTEA		512.540	503.876	ONDARE GARBIA		525.276	500.730
Ibilgetu ukiezina A.10		12.452	12.104	Ondarea		138.718	138.718
Ibilgetu materiala A.10		139.518	146.187	Aurreko ekitaldietako emaitzak		351.735	367.372
Lurraren ondare publikoa..... A.10		277.039	256.493	Ekitaldiaren emaitza		23.255	(15.662)
Finantza inbertsioak e/luz..... A.10		83.531	89.092	Jasotako dirulag., aplikatzeke		11.568	10.302
				PASIBO EZ-KORRONTEA		74.027	121.442
				Kred. erakun. epe luz. zorrak..... A.11		59.449	107.455
				Hartzek. eta ordaint. knt. e/luz.		2.080	1.267
				Aldizkakotzeagatiko doiketak. epe/luz. ...		12.498	12.720
AKTIBO KORRONTEA		139.524	158.885	PASIBO KORRONTEA		52.761	40.589
Zordunak eta kobratz knt e/lab.		83.138	91.340	Kreditu entitateekiko zorrak e/lab. A.11		11.031	10.691
Finantza inbertsioak e/lab.		3.162	2.343	Taldeko enprekin zorrak e/lab..... A.11		2.290	2.290
Eskud. eta bst. aktibo likido batzuk		53.224	65.202	Epe laburreko bestel. zorrak		16.644	14.683
				Hartzek. eta e/lab. ordaint. knt.		22.796	12.925
AKTIBOA		652.064	662.761	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		652.064	662.761

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA, 2021 ETA 2020

Euroak milakotan

	2021	2020
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak	159.194	145.114
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	170.457	144.102
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa	479	293
Kudeaketa korronteko beste sarrera b.	8.849	7.535
Pertsonaleko gastuak.....	(85.478)	(84.280)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	(111.222)	(117.026)
Kudeaketa arrunteko bste gastu batzuk	(95.585)	(91.501)
Ibilgetua amortizatzea	(22.318)	(20.063)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	24.376	(15.826)
Beste kontu-sail ez arrunt batzuk	745	807
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZAK	25.121	(15.019)
Sarrera finantzarioak	2.212	1.419
Gastu finantzarioak	(462)	(610)
Finantza aktibo eta pasiboen balio-narriadura.....	(3.616)	(1.452)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA	(1.866)	(643)
EKITALDIAREN EMAITZA	23.255	(15.662)



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSKINA	DONOSTIATIK	KIROL P.	MUSIKA ETA DANTZA
3. Tasak eta bestelako sarrerak		-	7.489	1.156
4. Transferentzia korronteak		6.777	10.495	4.253
5. Ondare-sarrerak		-	55	-
7. Kapitalezko transferentziak		572	1.410	125
ESKUBIDE KITATUAK GUZTIRA		7.349	19.449	5.534
1. Pertsonaleko gastuak	A.7	4.077	5.094	4.791
2. Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontrataz.		2.049	9.271	470
3. Gastu finantzarioak		-	23	1
4. Transferentzia korronteak		-	1.147	-
6. Inbertsio errealak		583	837	127
OBLIGAZIO AITORTUAK GUZTIRA		6.709	16.372	5.389

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

	DONOSTIATIK	KIROL P.	MUSIKA ETA DANTZA
Ekitaldiaren emaitza	640	3.077	145
Ekitaldi itxien emaitza	-	(203)	(317)
AURREKONTUAREN EMAITZA	640	2.874	(172)
Diruzaintza-geldikinarekin finantzatutako oblig.	29	118	37
Finantzaketako desbideratzeak	-	-	-
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	669	2.992	(135)

DIRUZAINZA GELDIKINA

Euroak milakotan

	DONOSTIATIK	KIROL P.	MUSIKA ETA DANTZA
Diruzaintza	121	831	217
Aurrekontuko zordunak	900	4.869	1.035
Zordun ez aurrekontukoak	33	79	9
Aurrekontuko hartzekodunak	(121)	(1.205)	(108)
Hartzekodun ez-aurrekontukoak	(251)	(1.476)	(1.072)
Kaudimen-gabez. zuzkidura	-	(16)	-
DIRUZAINZA GELDIKINA	682	3.082	81
Finantzaketa atxikia duten gastuet. diruzaintza geldikina	-	-	-
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	682	3.082	81



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEAK 2021EKO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	DONOSTIATIK	KIROL P.	MUSIKA ETA DANTZA
AKTIBO EZ-KORRONTEA	4.094	14.534	399
Ibilgetu ukiezina	432	94	6
Ibilgetu materiala	3.662	4.602	262
Lurraren ondare publikoa.....	-	9.838	131
AKTIBO KORRONTEA	1.054	5.764	1.261
Zordunak eta kobratz bestel. knt e/lab.....	933	4.933	1.044
Eskud. eta bst. aktibo likido batzuk	121	831	217
AKTIBOA	5.148	20.298	1.660
ONDARE GARBIA	4.775	17.617	480
Ondarea.....	1.148	974	215
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	1.628	11.739	371
Ekitaldiaren emaitza	445	2.865	(118)
Jasotako dirulag., aplikatzeke.....	1.554	2.039	12
PASIBO KORRONTEA	373	2.681	1.180
Zorrak epe lab.	38	626	821
Hartzek. eta e/lab. ordaint. knt.....	335	2.055	359
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	5.148	20.298	1.660

2021EKO EKITALDIKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Euroak milakotan

	DONOSTIATIK	KIROL P.	MUSIKA ETA DANTZA
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	7.349	11.906	4.060
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa	-	7.094	1.153
Kudeaketa korronteko beste sarrera b.....	-	246	-
Pertsonaleko gastuak.....	(4.100)	(5.096)	(4.795)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	-	(1.147)	-
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....	(2.026)	(9.270)	(466)
Ibilgetua amortizatzea	(778)	(845)	(72)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	445	2.888	(120)
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZAK	445	2.888	(118)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA	-	(23)	-
EKITALDIAREN EMAITZA	445	2.865	(118)



V.3 SOZIJETATE PUBLIKOAK ETA ENPRESA ENTITATE PUBLIKOAK

	BALANTZEAK 2021EKO ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan
	ETXEGINTZA EEP	KULTURA EEP	SAN TELMO MUSEOA S.A.	VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA S.A.	
AKTIBO EZ-KORRONTEA	162.811	19.344	21.568	18.979	
Ibilgetu ukiezina	46	339	60	4	
Ibilgetu materiala	1.346	18.849	21.507	18.975	
Ibilgetuko inbertsioak	161.410	-	-	-	
Taldeko enpresetan epe luzeko inbertsioak.....	-	156	-	-	
Epe luzeko inbertsio finantzarioak	9	-	1	-	
AKTIBO KORRONTEA	8.172	6.534	1.201	1.872	
Izakinak	111	-	-	-	
Merkataritzako zordunak eta kobratz. kontuak.....	3.873	1.448	486	711	
Taldeko enpresetan epe motzeko inbertsioak	-	2.943	605	900	
Epe laburreko finantza inbertsioak	7	2	-	-	
Aldizkatzeak epe laburrera.....	114	202	5	70	
Eskud. eta beste aktibo likido baliokide batz.	4.067	1.939	105	191	
AKTIBOIA	170.983	25.878	22.769	20.851	
ONDARE GARBIA	65.330	22.094	21.634	19.016	
Funts propioak	(3.776)	1.861	67	90	
Kapitala	-	1.091	67	90	
Aurreko ekitaldietako emaitzak	(4.883)	-	-	-	
Bazkideen beste ekarpen batzuk	996	13.363	3.807	5.317	
Ekitaldiaren emaitza	111	(12.593)	(3.807)	(5.317)	
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak	69.106	20.233	21.567	18.926	
PASIBO EZ-KORRONTEA	98.487	-	-	-	
Zorrek kreditu erakundeekin epe luzera.....	69.588	-	-	-	
Bestel. finantza pasiboak epe luzera	13.473	-	-	-	
Gerorat. zergarengatiko pasiboak	7.619	-	-	-	
Aldizkakotzeak epe luzera	7.807	-	-	-	
PASIBO KORRONTEA	7.166	3.784	1.135	1.835	
Zorrek, kreditu erakundeekin epe lab.	5.255	-	-	-	
Taldeko enpresekiko epe laburreko zorrak.....	1.118	1.505	-	-	
Epe laburreko hornidurak	-	30	14	14	
Bestel. finantza pasiboak epe laburrera.....	58	69	16	21	
Merkataritz. hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk	518	1.834	1.104	1.516	
Aldizkatzeak epe laburrera.....	217	346	1	284	
ONDARE GARBIA ETA PASIBOIA	170.983	25.878	22.769	20.851	



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEAK 2021EKO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	(*) Eguskiza	Donostiako Tranbia konp.	Hileta zerbitz.	Donostia Sustapena	Donostia Turismo	Anoeta Kiroldedia	La Perla Bainuetxea
AKTIBO EZ-KORRONTEA	518	24.293	2.017	22.002	106	76.486	2.260
Ibilgetu ukiezina	-	207	208	7	44	-	-
Ibilgetu materiala	518	23.966	1.809	3.295	44	235	-
Ibilgetuko inbertsioak	-	-	-	18.692	-	72.951	2.260
Epe luzeko inbertsio finantzarioak	-	120	-	8	18	3.300	-
AKTIBO KORRONTEA	-	12.990	2.329	8.507	1.149	4.037	1.171
Izakinak	-	519	2	-	268	-	-
Merkatar. zordun. eta kobratzeko knt.	-	3.448	175	7.396	246	3.345	248
Taldeko enpresetan inbertsioak e/lab.	-	5.305	-	-	-	-	-
Aldizkatzeak epe laburrera	-	430	-	-	-	-	-
Eskud. eta bst. aktibo likido batzuk	-	3.288	2.152	1.111	635	692	923
AKTIBOA	518	37.283	4.346	30.509	1.255	80.523	3.431
ONDARE GARBIA	393	16.629	3.336	18.559	259	22.676	3.236
Funts propioak	393	14.582	3.288	13.023	169	5.689	2.932
Kapital soziala	433	13.474	1.292	9.605	84	5.037	1.807
Jaulkipen prima	-	301	-	11	-	-	-
Erreserbak	-	752	1.465	3.406	-	3.876	1.048
Aurreko ekitaldietako emaitzak	(40)	-	-	1	-	(3.095)	(12)
Bazkideen beste ekarpen batzuk	-	26.136	-	8.820	2.916	-	-
Ekitaldiaren emaitza	-	(26.081)	531	(8.820)	(2.831)	(129)	89
Dirulaguntz., dohaintzak eta legat.	-	2.047	48	5.536	90	16.987	304
PASIBO EZ-KORRONTEA	-	5.814	711	1.777	11	53.206	96
Zorrek kreditu erakundeekin epe luz.	-	5.814	-	-	-	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak	-	-	4	523	11	3.303	-
Gerorat. zergarengatiko pasiboak	-	-	-	-	-	-	96
Aldizkakotzeak epe luzera	-	-	707	1.254	-	49.903	-
PASIBO KORRONTEA	125	14.840	299	10.173	985	4.641	99
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.	-	808	-	-	-	-	-
Epe laburreko bestel. zorrak	-	4.486	-	377	15	-	-
Epe laburreko hornidurak	-	239	-	-	25	-	-
Merkatar. hartz. eta ordaintz kontuak	125	8.262	237	8.806	890	3.567	99
Aldizkatzeak epe laburrera	-	1.045	62	990	55	1.074	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	518	37.283	4.346	30.509	1.255	80.523	3.431

(*) Jarduerarik gabeko sozietate publikoa



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2021EKO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Etxegintza EEP	Kultura EEP	San Telmo Museoa S.A.	Victoria Eugenia Antzokia S.A.
Negozio zifraren zenbateko garbia	8.231	6.437	241	1.511
Enpresak aktiborako egindako lanak	14	-	-	-
Hornidurak.....	(64)	-	-	-
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	428	173	732	678
Pertsonaleko gastuak.....	(1.765)	(13.107)	-	(37)
Bestelako ustiapen gastuak.....	(3.831)	(6.088)	(4.793)	(7.468)
Ibilgetua amortizatzea	(3.213)	(886)	(898)	(819)
Dirulaguntzak egozteak.....	1.272	878	898	818
Ibilgetua besterenganatzeag. narriadura eta emaitza	149	-	-	-
Beste emaitza batzuk.....	131	-	13	-
USTIAPENAREN EMAITZA	1.352	(12.593)	(3.807)	(5.317)
EMAITZA FINANTZARIOA	(1.241)	-	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA	111	(12.593)	(3.807)	(5.317)

2021EKO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Donostiako Tranbia konp.	Hileta zerbitz.	Donostia Sustapena	Donostia Turismo	Anoeta Kiroldegia	La Perla Bainuetxea
Negozio zifraren zenbateko garbia	15.351	1.702	4.476	250	-	-
Hornidurak.....	(3.900)	(319)	(4.094)	(52)	-	(50)
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	1.585	36	5.064	203	1.857	469
Pertsonaleko gastuak.....	(31.630)	(635)	(3.122)	(1.767)	-	-
Bestelako ustiapen gastuak.....	(4.507)	(159)	(10.302)	(1.461)	(730)	(218)
Ibilgetua amortizatzea	(3.365)	(129)	(1.225)	(31)	(1.642)	(117)
Dirulaguntzak egozteak.....	344	8	384	27	386	29
Narriadura eta emaitza bestereng. emaitza....	53	-	-	-	-	-
Beste emaitza batzuk.....	32	8	-	-	-	-
USTIAPENAREN EMAITZA	(26.037)	512	(8.819)	(2.831)	(129)	113
EMAITZA FINANTZARIOA	(44)	19	(1)	-	-	-
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(26.081)	531	(8.820)	(2.831)	(129)	113
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	-	-	-	(24)
EKITALDIAREN EMAITZA	(26.081)	531	(8.820)	(2.831)	(129)	89

ERANSKINAK

A.1 ERAKUNDE FISKALIZATUAREN IZAERA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA

Donostiako Udala administrazioko toki erakundea da, eta oinarritzko alderdietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, arautzen dute.

Oinarrien lege horrek, II. tituluko III. kapituluan, udalerriek dituzten eskumenak eta ematen dituzten zerbitzu publikoak zehazten ditu, besteak beste, honako hauek: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, hiriko garraio kolektiboa, suteak itzaltzea, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina eta kultura- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzuak zuzenean eman ditzakete bai toki-erakundeak berak, bai erakunde autonomoek, tokiko enpresa erakunde publikoek edo berak sortutako tokiko merkataritzako sozietate publikoek, edo zeharka, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak egiteko kontratazio publikoari buruzko legedian aurreikusitako molde ugariak baliatuta. Gainera, toki erakundeak bere eskumeneko zerbitzuak eman ditzake partaide den mankomunitate eta partzuergoen bidez.

Ekitaldian ezargarria den ekonomia eta kontularitzari buruzko araudi nagusia honako hau izan da:

- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
- 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5koa, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena.
- 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15koa, Gipuzkoako toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onesten duena.
- 2021eko ekitaldiko Aurrekontua Egikaritzeko Udal Araua.



A.2 AURREKONTUA ETA AURREKONTUKO ALDAKETAK

2021eko ekitaldirako aurrekontua 2021eko martxoaren 31n onartu zuen hasieran Osoko Bilkurak, 2020aren amaieran pandemiaren ondorioz diru-sarrereren mailari buruz zeuden ziurgabetasunak zirela eta. Jendaurrean azaltzeko epea igaro ondoren eta erreklamaziorik batere izan ez zenez gero, behin betiko onartu zen eta 2021eko maiatzaren 12ko GAOn argitaratu zen.

Hona hemen, Udalaren aurrekontuan 2021eko aldaketak aurrekontuko kapituluaren arabera xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan					
	KREDITU TXERTAK.	KREDITU GEHIGARRIA	KREDITU GAIKUNTZA	TRANSFERENTZIAK		GUZTIRA
			NEG.	POS.		
1. Pertsonaleko gastuak.....	215	-	445	(498)	-	162
2. Ondasun korronteen eta zerbitz. kontrat.	14.887	-	57	(2.495)	1.145	13.594
3. Gastu finantzarioak	-	-	-	(398)	20	(378)
4. Transferentzia korrontek	6.607	-	2.681	(291)	2.473	11.470
5. Kred. glob. eta bestel. ustekabekoak	-	-	-	(177)	-	(177)
6. Inbertsio errealak	97.246	68	589	(4.043)	2.673	96.533
7. Kapitalezko transferentziak	12.058	30	170	(1.534)	3.125	13.849
9. Pasibo finantzarioak	-	14.000	8.500	-	-	22.500
GASTUAK, GUZTIRA	131.013	14.098	12.442	(9.436)	9.436	157.553
3. Tasak eta bestelako sarrerak	-	-	58	-	-	58
4. Transferentzia korrontek	-	14.000	3.126	-	-	17.126
6. Inbertsio errealen besterentzea.....	-	-	8.598	-	-	8.598
7. Kapitalezko transferentziak	-	-	660	-	-	660
8. Aktibo finantzarioak	131.013	98	-	-	-	131.111
SARRERAK, GUZTIRA	131.013	14.098	12.442	-	-	157.553

Aurrekontuko aldaketa hauek % 46,1 igo dira, hasiera bateko 341,9 milioi euroren aurrekontua izatetik 499,4 milioi euroren behin betiko aurrekontua izatera aldatuz.

Udalaren Aurrekontuko likidazioa Alkatetza Dekretu bidez onartu zen 2022ko otsailaren 28an eta 3 erakunde autonomoena, 2022ko martxoaren 4an. Kontu Orokorrak Kontuen Batzorde Bereziaren aldeko txostena jaso zuen 2022ko maiatzaren 25ean eta jendaurrean agertu ostean, batere erreklamaziorik jaso ez zuela, Udalbatzak 2022ko uztailaren 21ean onartu zuen.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen Udalak 2021eko ekitaldian zehar zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan ZENBATEKOA
Ondasun higiezinak	46.254
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuak	11.205
Hiri izaerako lursailen balio igoera	12.219
Jarduera ekonomikoak.....	11.320
ZERGA ZUZENAK, GUZTIRA	80.998
Eraikuntza, instalakuntza eta obrak	5.110
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	5.110
TASAK	56.184
Hiriko hondakin solidoen bilketa eta desegitea.....	20.490
Ur hornidura eta estolderia zerbitzua.....	20.365
Bide publikoan ibilgailuak aparkatzea-TAO	7.495
Bide publikoa okupatzea (hesiak, mahaiak eta aulkiak, zangak eta beste)	4.158
Hornidura enpresek lurra, lur azpia eta lur gaina okupatzeagatiko tasa	1.932
Beste txiki batzuk	1.744
PREZIO PUBLIKOAK	480
KONTRIBUZIO BEREZIAK	985
ITZULKETAK	745
BESTELAKO SARRERAK	7.190
Trafikoko arau-hausteengatiko isunak	3.504
Hirigintzako zigorrak eta beste	1.026
Premiamendu eta berandutza interesen errekarquak.....	1.645
Telefonia-enpresen diru-sarrerak	828
Beste txiki batzuk	187
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	65.584
1, 2 ETA 3 KAPITULUAK GUZTIRA	151.692

Konstituzio Auzitegiak, 2021eko urriaren 26an, epaia eman zuen eta Konstituzioaren kontraktatzat eta balio gabetzat jo zituen Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren artikulua jakin batzuk. Artikulu horiek HLBGZren zerga-oinarriaren kalkulua zehazten zuten. Foru araudia emandako epaiari egokitzeko azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu-Araua onartu zen, HLBGZren Foru Araua egokitzeari buruzkoa.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen Udalak 2021eko ekitaldian “Transferentzia korronteak” eta “Kapitalezko transferentziak” aurrekontuko kapituluetan kitatutako eskubideen xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	KORRONTEAK	KAPITALA
Estatuarenak	1.788	500
Garraio publikoaren zerbitzua, Covid-19agatik ezohiko laguntza	1.550	-
Kontxako horma eta baranda.....	-	500
Beste txiki batzuk.....	238	-
Euskal Autonomia Erkidegoarenak	4.102	1.079
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.....	2.638	-
Eskualdeko enplegu-plana	550	-
Ikastetxeetako lanak	-	492
Uraren Euskal Agentzia: Astiñeneko zubia	-	410
Beste txiki batzuk.....	914	177
GFArenek	164.534	500
Zerga itunduetan partaidetza-UFFF	158.739	-
Etezez etxekeko laguntza	2.700	-
Suteak itzaltzea	1.750	-
Gizarte-zerbitzuen ezohiko funtsa	692	-
Altzako kiroldegia.....	-	500
Beste txiki batzuk.....	653	-
Enpresa pribatuenak	-	169
GUZTIRA	170.424	2.248

2021eko ekitaldian kontabilizatutako UFFFeko sarrerak, 158,7 milioi eurorenak, egiaz kobratutako diru-sarrerarenak dira, gehi ekitaldi horretako urrian Finantzen Euskal Kontseiluak egindako likidazioaren aurreikuspenarenak. Organo horrek 2022ko otsailaren 14an onartutako azken likidazioa 7,9 milioi euro handiagoa izan da eta sarrera 2022ko ekitaldian kontabilizatu da.

Udalak 2021a baino lehenagoko ekitaldietan 2,7 milioi euroren diru-sarrera jaso zuen, Osakidetzak Bretxako Arrandegi eraikinean egin beharreko obra komunetarako hitzemandako finantzaketari dagokiona. Eraikin horretan osasun-zentro bat eta udal-kirol instalazio batzuk egongo dira. Osakidetzaren finantzaketaren ehunekoa % 41,6 da. Kontuan hartuta Udalak 2021eko abenduaren 31n onartutako obligazioak 1,6 milioioiak direla, 2,1 milioi euroko zenbatekoa kendu beharko litzateke Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinetik, 2021eko ekitaldiko finantzaketa positiboaren desbideratze gisa.



A.5 ONDARE-SARRERAK

Udalak aurrekontuko kapitulu honetan 2021eko ekitaldian aitortutako obligazioen xehakapena honako hau da:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Dibidenduak enpresa partaidetuetan.....	565
Hiri finken errentamendua.....	974
Administrazioko emakidak.....	3.102
Finantza-erakundeetan gordailuen interesak.....	2
GUZTIRA	4.643

Txofre plazako lur azpiko aparkalekuaren zerbitzu publikoko emakida kontratua 2016ko otsailaren 19an amaitu zen eta kontratazioa arautu zuten pleguek ez zuten kontratua luzatzeko aukerarik aurreikusi. Tokiko Gobernu Batzarrak kontratuari jarraipena ematea erabaki zuen harik eta berriz esleitu arte; ordea, lanari ekin diogun datan lizitazio-prozesua abiarazi gabe dago. 2021eko ekitaldian ustiaketa-kanon kontzeptuarekin aitortutako diru-sarrerek 396.120 euro egin zuten.

A.6 INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA

Hona hemen Udalak 2021ean aitortutako sarrerren xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
San Bartolomé Muinoa S.A.: jaulkipen-primaren itzulketa (ikus A.10)	12.445
Eskuzaitzetako lursailak GFari besterentzea.....	8.526
Hirigintzako aprobetxamenduak	4.908
Eskuzaitzeta eremuko urbanizazio-kuotak	556
Beste txiki batzuk	1.266
GUZTIRA	27.701

Udalak urtero fakturatzeko dio SPILUR S.A.ri, Eskuzaitzetako eremuaren jabeak den aldetik, hurrengo ekitaldian egin beharreko urbanizazio-obren aurreikuspenaren % 46,27. 2021eko abenduaren 31n, egindako eta kobratutako fakturak, obra horien 7. separatari (ikus A.15 2. espedientea) eta instalazio elektrikoei dagokienez, batez ere 5 milioi eurorenak dira, BEZa barne hartu gabe (555.958 euroren diru-sarrera aitortuak 2021ean eta 4,4 milioi euro aurreko ekitaldietan), eta data horretan 4,8 milioi euro gauzatu dira, BEZik gabe (2021ean aitortutako obligazioak). Beraz, gauzatutako urbanizazio-gastuetan SPILUR S.A.k duen partaidetza-ehunekoa aplikatuta, 2,8 milioi euroko zenbatekoa kendu beharko litzateke, 2021eko ekitaldiko GODGren finantzaketa positiboaren desbideratze gisa.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.7 PERTSONALEKO GASTUAK

Udalak eta haren erakunde autonomoek aurrekontuko kapitulu honetan 2021eko ekitaldian aitortutako obligazioen xehakapena honako hau da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	UDALA	DONOSTIATIK	KIROL P.	MUSIKA ETA DANTZA
Goi kargudunen ordainsariak.....	1.603	-	-	-
Behin-behineko langileen ordainsariak	1.281	-	-	-
Karrerako funtz. eta bitarteko funtz. ordainsariak	60.467	3.060	3.878	3.716
Lan kontratu finkoko langileen ordainsariak	91	135	35	-
Aldi baterako langileen ordainsariak.....	543	3	-	-
Gizarte Segurantzaz.....	17.354	735	917	942
Elkarkidetzaz	943	69	71	61
Erretiro aurreratuagatikoz sariak	1.641	48	137	33
Beste gizarte-gastu batzuk.....	915	27	56	39
GUZTIRA	84.838	4.077	5.094	4.791

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langile publikoei ordaindutako ordainsariak 2021eko ekitaldian % 0,9ko igoera izan dute, 2021eko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legean agindutakoari jarraikiz.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko abenduaren 28an, langile publikoei finkagarria ez den produktibitate-osagarri bat ordaintzea onartu zuen, negoziazio kolektiboan ezarritako baldintzetan: 700 euroko zenbateko finko bat langile bakoitzeko, gobernu-programan ezarritako helburuak betetzeari eta horiek lortzeko aurrerapen-mailari lotuta, eta 100 euroko zenbateko aldakor bat, langile bakoitzaren benetako presentziaren arabera. 2021eko ekitaldian osagarri horren izenean ordaindutako zenbatekoa 1,3 milioi euro izan da Udalean eta haren erakunde autonomoetan.

Udalak eta haren erakunde autonomoek erretiro aurreratuagatikoz primak ordaintzeko aitortutako gastua 1,9 milioi euroena izan zen, eta Udalak lan-etekin horiek PFEZtik salbuesitakotzat jo zituen. Lan-baldintzak arautzen dituen akordioa giza baliabideak arrazionalizatzeko plan bat onartzearen ondorioz aldatu zen, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 51. artikuluan aurreikusitako antolamendu-kausetan oinarrituta, eta GAOn argitaratu zen 2021eko maiatzaren 6an. Bada, salbuesitako errentak arautzen dituen PFEZaren urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 9. artikulua administrazio publikoetako giza baliabideen plan estrategikoak aipatutako 51. artikuluan oinarritutako arrazoi objektiboengatikoz kaleratze edo kargugabetzeekin parekatzen ditu. Giza baliabideak arrazionalizatzeko plana onartu aurretik 22 langile publikori ordaindutako primen zenbatekoa milioi 1 eurokoa zen, eta ezin dira salbuesitako errentatzat hartu hitzarmen edo itun bidez ordaindutako kalte-ordainak.

Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salak 2022ko apirilean emandako epaiaren arabera, erretiro aurreratuaren primak legezko estaldurarik gabeko ordainsariak dira eta horren ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko uztailean, indargabetu egin ditu

lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren eta prima horiekin lotutako giza baliabideak arrazionalizatzeko planaren artikulua.

Plantilla erreala eta LZ

2021eko abenduaren 31n Udalaren eta haren erakunde autonomoen lanpostu zerrendan barne hartutako plantilla errealean dauden langile eta lanpostu kopurua honako hau da:

KONTZEPTUA	PLANTILLA	Kopurua
		LANPOSTUAK
Goi kargudunak (alkate eta zinegotziak)	27	-
Behin-behineko langilea	22	23
Zuzendariak	15	15
Karrerako funtzionarioak	870	1.452
Bitarteko funtzionarioak lanpostu hutsetan	373	-
Bitarteko funtzionarioak, progr. eta ordezkapenengatik.....	105	-
Lan kontratuko langile finkoak	4	-
Aldi baterako lan kontratuko langileak	31	-
UDALA GUZTIRA	1.447	1.490
Zuzendaria	1	1
Karrerako funtzionarioak	30	55
Bitarteko funtzionarioak	26	-
Lan kontratuko langile finkoak	2	-
Aldi baterako lan kontratuko langileak	3	-
DONOSTIATIK GUZTIRA	62	56
Zuzendaria	1	1
Karrerako funtzionarioak	53	77
Bitarteko funtzionarioak	46	-
Lan kontratuko langile finkoak	1	-
Aldi baterako lan kontratuko langileak	1	-
KIROL PATRONATUA GUZTIRA	102	78
Zuzendaria	1	1
Karrerako funtzionarioak	55	85
Bitarteko funtzionarioak	45	-
MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA GUZTIRA	101	86
GUZTIRA	1.712	1.710



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Enplegu Publikoaren Eskaintza

Hona hemen 2017-2021 aldian onartutako EPEetatik eratorritako eta 2021eko ekitaldian deitutako hautaketa prozesuak:

KATEGORIA	PLAZA KOP.	DEIALDIA
Administrariak	97	ots-21
Hizkuntza normalizazioko erdi mailako teknikariak	5	api-21
UDALA GUZTIRA	102	
Kirol Patronatua: Administrariak	8	mar-21
Kirol Patronatua: erdi mailako teknikariak	2	ots-21
Musika eta Dantza eskola: goi mailako teknikaria	1	ots-21
ERAKUNDE AUTONOMOAK GUZTIRA	11	

Gainera, Udalean eta haren erakunde autonomoetan, 2021eko abenduaren 31n, onartzeke daude 2021eko ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako EPEetan jasotako 25 lanposturen deialdiak. Enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea indarrean sartu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak eta erakunde autonomoetako Kontseilu Errektoreek 331 lanposturen EPEak onartu dituzte 2022ko maiatzean.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.8 ONDASUN KORRONTEEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Udalak aurrekontuko kapitulu honetan 2021eko ekitaldian aitortutako obligazioen xehakapena honako hau da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan ZENBATEKOA
Errentamenduak	774
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	2.307
Bulegoko materiala	731
Hornidurak	8.574
Ura.....	3.887
Energia elektrikoa	2.371
Gasa eta erregaia.....	647
Beste txiki batzuk.....	1.669
Komunikazioak	1.432
Garraioak	89
Aseguru-primak	730
Tributuak	40
Askotariko gastuak	10.090
Hondakin uren saneamendua eta arazketa.....	5.934
Beste txiki batzuk.....	4.156
Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak	70.003
Hiriaren eta hondartzen garbiketa	13.805
Udal eraikin eta ikastetxeen garbiketa.....	7.294
Estolderiaren garbiketa.....	1.499
Hiriko hondakin solidoen bilketa.....	6.165
Parkeen eta lorategien zaintza.....	4.302
Kaleetako zoladura zaindu eta berritzea.....	3.333
Herriko argiteriaren mantentze-lana	1.785
Saneamendu- eta hornidura-sareen mantentze-lana.....	1.327
Etxez etxeko laguntza zerbitzua.....	8.911
Arreta sozio-heziketazkoa eta psikosoziala.....	1.401
Haur eta gazteentzako zentron kudeaketa	1.164
Familiei eta arrisku egoeran dauden adingabeei arreta	990
Bazterkeria egoeran dauden pertsoneri arreta	826
Araututako aparkalekuen eta ibilgailuak eramateko zerbitzua.....	6.002
Beste txiki batzuk.....	11.199
Dietak eta kalte-ordainak	1.455
GUZTIRA	96.225



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.9 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Hona hemen Udalean 2021eko abenduaren 31n gauzatzeko dauden obligazio aitortuen eta kreditu-erabileren xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	KORRONTEAK		KAPITALEZKOAK	
	O FASEA	D-O	O FASEA	D-O
TRANSFERENTZIAK	94.933	5.468	4.356	5.000
San Marko Mankomunitatea: hiri hondakin solidoen kudeaketa.....	12.647	1.093	-	-
Udal erakunde autonomoak	20.284	-	1.850	3.394
Udal enpresa erakunde publikoak	24.534	-	1.873	1.187
Udalaren sozietate publikoak	32.796	4.372	633	419
Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa S.A.	1.690	-	-	-
Donostiako Zinemaldia S.A.	1.123	-	-	-
Donostiako hamabostaldia S.A.....	414	-	-	-
Kursaal Zentroa S.A.	180	-	-	-
Cristina Enea fundazioa	629	3	-	-
Donostia International Physics Center Fundazioa.....	451	-	-	-
Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Partzuergoa.....	185	-	-	-
IZENDUNAK	1.069	-	965	519
Hipódromos y Apuestas Hípicas, S.A.	800	-	-	-
Euskal Funtsa	159	-	-	-
Euskal Herriko Unibertsitatea: Uda ikastaroak	110	-	-	-
Uraren Euskal Agentzia: Martuteneko uholde-plana.....	-	-	(*) 715	519
Basque Culinary Center	-	-	250	-
LEHIA	6.683	782	1.304	3.334
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak	3.339	-	-	-
Partekatutako lan-egitasmoari laguntzak	605	-	-	-
Jubilatuen etxeak	602	-	-	-
Garapen bidean dauden herrialdeetan kooperazio-proiektuak.....	686	408	-	-
Garapenerako sentikortze eta heziketa proiektuak.....	(*) 309	257	-	-
5. edukiontzia erabiltzeagatiko konpentsazioa.....	(*) 332	-	-	-
Norbanakoei euskara irakastea.....	329	10	-	-
Gizarte eremuko elkarateak.....	252	107	-	-
Zerga eta tasetan hobariak/kompentsazioak	229	-	-	-
Egoitza-erakinak zaharberritzea.....	-	-	(*) 1.304	3.334
ZUZENAK	-	-	200	-
Giroa S.A.: Txomin Enea auzoaren zaharberritze energetikoa	-	-	(*) 200	-
BESTELAKO TXIKIAGOAK (100 mila eurotik beherakoak)	1.718	588	157	37
UDALA GUZTIRA	104.403	6.838	6.982	8.890

(*) Aztertutako transferentziak eta dirulaguntzak.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.10 AKTIBO EZ-KORRONTEA

Hona hemen Udalaren Balantzean ibilgetu garbiko kontuek 2021ean izan dituzten eragiketak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				SALDOA 21.12.31
	SALDOA 21.1.1	AURREK. ALTAK	2021 B. MUGIM. AMORTIZ.	B. MUGIM. BATZUK	
IBILGETU UKIEZINA	12.104	2.055	(1.707)	-	12.452
Ikerketan inbertsioa	9.116	311	(1.093)	-	8.334
Aplikazio informatikoak	5	-	-	-	5
Errentamendu edo lagapen erregimeneko aktiboak	-	710	-	-	710
Beste ibilgetu ukiezin bat	2.983	1.034	(614)	-	3.403
IBILGETU MATERIALA	146.187	8.183	(15.003)	151	139.518
Lursailak	2.031	-	-	-	2.031
Eraikuntzak	119.843	141	(4.540)	-	115.444
Azpiegiturak	20.897	4.931	(7.832)	-	17.996
Ondare historikoko ondasunak	364	-	(8)	-	356
Makineria eta lanabesak	230	100	(95)	-	235
Instalakuntza teknikoak	4.231	951	(1.079)	-	4.103
Altzariak	84	1	(37)	-	48
Informazio prozesuetarako ekipoak	64	43	(4)	-	103
Garraio gaiak	2.115	359	(307)	-	2.167
Beste ibilgetu material bat	(3.672)	1.657	(1.101)	151	(2.965)
LURRAREN ONDARE PUBLIKOA	256.493	35.280	(5.607)	(9.127)	277.039
Lursailak	36.968	129	-	(9.127)	27.970
Eraikuntzak	193.468	18.458	(5.099)	-	206.827
Lursailak egokitzea	24.615	16.693	(499)	-	40.809
Beste ondare batzuk	1.442	-	(9)	-	1.433
GUZTIRA	414.784	45.518	(22.317)	(8.976)	429.009

Ondare kontabilitatean ez dira modu egokian jasotzen aurrekontuz kanpoko mugimenduak, zeinak Ondasun eta eskubideen inbentarioan jasotzen baitira. Alabaina, Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko apirilaren 12an onartutako ondasun-zerrenda horrek ez ditu jasotzen zerrendako elementuen gainean egindako hobekuntzak. Bi erregistroen balio gordinen arteko aldea 150 milioi euro inguru da.

2021eko ekitaldian, Udalaren balantzean “Epe luzeko inbertsio finantzarioak” epigrafearen mugimendua eta 2021eko abenduaren 31ko udal-partaidetzaren ehunekoa honako hau da:

	Euroak milakotan				
	BALIOA 21.1.1	ALTAK	BAJAK	BALIOA 21.12.31	%
Donostia Tranbia Konpainia S.A.....	13.776	-	-	13.776	100,00
Donostiako Sustapena S.A.....	9.913	-	-	9.913	100,00
Anoeta Kiroldedia S.A.	5.037	-	-	5.037	100,00
Eguskiza Higiezinen Sozietatea S.A.	3.221	-	-	3.221	100,00
Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.	1.292	-	-	1.292	100,00
La Perla del Océano Bainuetxearen Sozietatea S.L.....	1.807	-	-	1.807	99,99
Kursaal Zentroa S.A.....	12.905	-	-	12.905	50,00
San Bartolome Muinoa S.A.....	29.820	-	(1.193)	28.627	37,15
Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa S.A.....	4.050	-	-	4.050	33,33
San Martin Azoka S.A.	3.005	-	-	3.005	28,57
Beterri-Kostako Industrialdea S.A.....	3.347	-	-	3.347	15,65
Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea S.A.....	4.464	-	-	4.464	5,24
Beste txikiago batzuk	1.093	-	-	1.093	-
SALDO GORDINA	93.730	-	(1.193)	92.537	
Finantza inbertsioen narriadura.....	(4.638)	(4.368)	-	(9.006)	
SALDO GARBIA	89.092	(4.368)	(1.193)	83.531	

Udalak San Bartolome Muinoa S.A. sozietatean duen partaidetzaren hasierako balioa, 29,8 milioi euro, "CE.05.1 San Bartolome" egikaritze-unitatea garatzeko eratu zenean aurkeztutako eraikuntza-aprobetxamenduei dagokie. 2021eko ekitaldian, Udalak zenbateko hauek jaso ditu inbertsioa berreskuratzeko:

- Akzioen balio nominala gutxituz kapitala murriztea, 1,2 milioi euro; diru-sarrera hori "Finantza-aktiboak" aurrekontu-kapituluan kontabilizatu da.
- Jaulkipen-primaren itzulketa, 12,4 milioi euro, zeinaren sarrera "Inbertsio errealen besterentzea" aurrekontu-kapituluan kontabilizatu baita (ikus A.6).

Udalaren Balantzean 2021eko abenduaren 31n erregistratutako kontabilitate-balio garbia 19,7 milioi euro izan da, eta partaidetzaren balioa, San Bartolome Muinoa S.A.ren urteko kontuen arabera, data horretan 6,1 milioi eurokoa zen; alde hori finantza-inbertsioaren balio txikiago gisa erregistratu behar da.



A.11 PASIBO FINANTZARIOAK

Zorraren bilakaera ekitaldian honako hau izan da:

ERAKUNDEA	EMANDAKO		EMAKIDA	MUGAEG.	Euroak milakotan		
	KOPURUA	% INTER.TIPOA			ZORRA	AMORTIZ.	ZORRA
			DATA	DATA	21.1.1		21.12.31
Caixabank.....	5.833	euribor+1,10	2009	2024	1.683	(1.683)	-
Caixabank.....	17.498	euribor+1,02	2009	2024	5.315	(5.315)	-
Caixabank.....	9.452	euribor+1,03	2010	2025	3.090	(3.090)	-
Caixabank.....	4.726	euribor+1,03	2010	2025	1.609	(1.609)	-
Santander.....	4.726	euribor+1,03	2010	2025	1.545	(1.545)	-
Kutxabank.....	3.522	euribor+3,25	2012	2022	591	(591)	-
Caja Rural Navarra.....	3.522	euribor+3,60	2012	2022	592	(592)	-
Laboral Kutxa.....	3.522	euribor+4,00	2012	2022	467	(467)	-
Sabadell Guipuzcoano.....	1.781	euribor+2,48	2012	2026	822	(822)	-
BBVA.....	3.781	euribor+3,50	2013	2023	1.087	(1.087)	-
Kutxabank.....	3.781	euribor+3,50	2013	2023	1.268	(1.268)	-
Bankinter.....	5.042	euribor+3,25	2013	2023	1.513	(1.513)	-
Kutxabank.....	13.558	euribor+0,88	2014	2027	7.494	(5.295)	2.199
Santander.....	9.999	euribor+0,73	2015	2028	6.666	(833)	5.833
Caja Rural Navarra.....	3.333	euribor+0,70	2016	2029	2.291	(278)	2.013
Caja Rural Navarra.....	4.763	euribor+0,91	2017	2031	3.755	(3.755)	-
Fiare.....	9.525	euribor+0,80	2017	2031	7.510	(733)	6.777
Kutxabank.....	4.634	euribor+0,57	2018	2032	4.010	(356)	3.654
Laboral Kutxa.....	9.268	euribor+0,50	2018	2032	8.020	(713)	7.307
Kutxabank.....	14.410	euribor+0,54	2019	2034	14.410	(831)	13.579
Laboral Kutxa (*).....	14.492	euribor+0,46	2020	2033	14.492	-	14.492
Laboral Kutxa (*).....	13.468	euribor+0,43	2021	2036	13.468	-	13.468
KREDITU ERAKUN. GUZTIRA	164.636				101.698	(32.376)	69.322
Donostia-digital proiektua.....	17.000	-	2008	2022	2.616	(1.308)	1.308
Rozanes zentroaren proiektua.....	9.809	-	2009	2023	2.424	(808)	1.616
Zentro energetik. proiektua	2.097	-	2009	2024	699	(175)	524
INDUSTRIA MINIS. GUZTIRA	28.906				5.739	(2.291)	3.448
GUZTIRA	193.542				107.437	(34.667)	72.770

(*) 2019an eta 2020an kontabilizatutako maileguak, hurrenez hurren, 2021eko abenduaren 31n erabili gabeak.

Udalak, 2021eko ekitaldian, alde zuzenetik amortizatu zituen finantza-kosturik handiena zuten maileguak, 22,5 milioi eurora arte. Gainera, 2020ko ekitaldian aitortutako 13 milioi euroren aurrekontu-sarrera baliogabetu zen, Osoko Bilkurak Covid-19aren ondorioak arintzeko baimendutako ezohiko kreditu-eragiketari zegokiona, ez baitzen hura erabili.

2021eko abenduaren 31ko GODGk 28 milioi euroko zenbatekoa jaso zuen, data horretan erabiltzeko zeuden 2 maileguri zegokiena (ikus A.12), Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko ekitaldietan baimendutakoak. Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitateko arau-esparrua onartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuak agintzen du aurrekontuko diru-sarrera ordaindu aurretik aitortu ahal izateko, besteak beste, finantzatutako inbertsioekin duten harremana justifikatu behar dela eta inbertsio horiek obligazio aitortuen fasean egon behar dutela.

Udalak abalak eman dizkie Etxegintzako EEPari eta Donostiako Tranbia Konpainia S.A.ri, finantza-erakundeekin izenpetutako maileguen guztizkoaren zenbatekoan; horietatik 2021eko abenduaren 31n amortizatzeko 81,4 milioi euro daude (ikus A.16.4)

A.12 AURREKONTUKO ZORDUNAK

Hona hemen 2021eko abenduaren 31n kobratzeko dauden Udalaren aurrekontuko eskubideen osaera eta antzinasunaren xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	2019 eta lehen.	2020	2021	GUZTIRA
1. Zerga zuzenak	9.351	3.296	6.007	18.654
2. Zeharkako zergak.....	769	320	973	2.062
3. Tasak eta bestelako sarrerak	4.749	1.695	13.775	20.219
4. Transferentzia korranteak.....	-	-	19.224	19.224
5. Ondare-sarrerak	29	184	996	1.209
6. Inbertsio errealen besterentzea	4.979	902	1.481	7.362
7. Kapitalezko transferentziak.....	-	-	391	391
9. Pasibo finantzarioak (ikus A.11)	14.492	13.468	-	27.960
GUZTIRA	34.369	19.865	42.847	97.081

Udalak 2021eko abenduaren 31n nekez egingarritzat edo ezinezkotzat jo ditu kontuetan sortu zirenetik 24 hilabetetik gorako antzinasuna duten eskubide aitortuak, 19,9 milioi euroren zenbatekoa egin dutenak, eta ez ditu aintzat hartu 2019an diru-sarrera modura aitortutako mailegu finantzarioari dagokion erabili gabeko zenbatekoa (ikus A.11).

A.13 ERAGIKETA EZ-AURREKONTUKOAK

Hona hemen Udalean aurrekontuko ez sarrera ez gasturik eragiten ez duten eragiketengatik kobratu eta ordaindu beharreko kontuen xehakapena 2021eko abenduaren 31n:

	Euroak milakotan
ZORDUNAK	8.803
Bestel. zordun ez aurrekontukoak.....	8.272
Ordainsarien aurrerakinak	520
Beste txiki batzuk.....	11
HARTZEKODUNAK	(23.312)
Jasotako fidantzak eta gordailuak.....	(8.343)
Hainbat ordainketa eta itzulketa	(10.385)
PFEZagatik Ogasun Publiko hartzekoduna	(2.092)
BEZarengatiko hartzekodunak	(1.977)
Beste txiki batzuk.....	(515)
SALDO GARBIA	(14.509)

"Aurrekontukoak ez diren beste zordun batzuk" kontuak Anoeta Kiroldgia S.A.ri 2019ko ekitaldian emandako aurrerakin baten itzultzeke dagoen saldoa barne hartzen du, 3,3 milioi eurokoa, Eusko Jaurlaritzatik kobratu ez duen dirulaguntzak eragindako likidezirik ezaren ondorioz. Zenbateko hori "Aktibo finantzarioak" izeneko gastuen aurrekontu-kapituluan



erregistratu beharko litzateke; izan ere, kobratzeko, Anoeta estadioa eta alboko miniestadioa birmoldatzeko eta belar-hockeyko zelai berri bat egiteko obrak amaitu direla egiaztatu beharko da. Anoeta Kiroldedia S.A.k uste du obligazio guztiak 2022ko abenduaren 31 baino lehen ez direla beteko.

Ikusi dugu badaudela 2021ean jaulkitako ordainagiriak, “zorpetutako gastuengatik hartzekodunak” kontuan erregistratu ez direnak; hona hemen xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan ZENBATEKOA
Bide garbiketa: abenduko zerbitzua.....	1.053
Hondakinak jaso eta garraiatzea: abenduko zerbitzua.....	435
Ikastetxeen garbiketa: abenduko zerbitzua.....	298
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK	1.786
abenduko ziurtagiria.....	466
Loiolako zeharbideko hiri-integrazioa: azaroko ziurtagiria.....	458
Kontxako horma eta baranda: urria eta azaroko ziurtagiriak.....	220
Iztuetako azpiko pasagunea: abenduko ziurtagiria.....	214
Astiñene zubia eraikitzea: azaroko ziurtagiria.....	120
IBILGETU MATERIALA	1.478
GUZTIRA	3.264

Gastu hauek 2021eko abenduaren 31n erabilera fasean zeuden eta 2022ko ekitaldira txertatu dira.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.14 KONPROMISO-KREDITUAK

Hona hemen 2021eko ekitaldiko Aurrekontuko Likidazioan barne hartutako konpromiso kredituen egoera-orriaren xehakapena:

KONTZEPTUA	2022	2023	2024	2025	GUZTIRA	Euroak milakotan	
						A	D
						FASEA	FASEA
Autobus elektriko adimenduna ezartzea.....	140	273	7.280	1.302	8.995	8.995	-
Marrutxipiko lotunea GI-20 errepidean.....	1.181	1.772	591	-	3.544	3.544	-
Aurrekontu parte-hartzailea.....	1.500	1.500	-	-	3.000	-	-
Zubietako hockey zelaia.....	2.000	256	-	-	2.256	-	-
Altza kiroldegiko kanpoko igerilekuak.....	2.000	-	-	-	2.000	926	926
Hiri Antolam. Plan Orokorraren dokument. eta aurrerap.	480	480	480	-	1.440	674	674
Kaleak asfaltatzea eta bideak konpontzea.....	1.250	-	-	-	1.250	-	-
Udal-funtsak digitalizatzea.....	1.196	-	-	-	1.196	-	-
Etixerik gabeko pertsonentzako eguneko zentr. Villa Salia.....	1.110	-	-	-	1.110	1.101	1.101
Beste txiki batzuk.....	5.794	270	200	-	6.264	902	902
INBERTSIO ERREALAK	16.651	4.551	8.551	1.302	31.055	16.142	3.603
Etzegintza EEP inbertsioen finantzaketa.....	3.139	3.547	3.638	-	10.324	-	-
Beste txiki batzuk.....	400	250	-	-	650	-	-
KAPITALEZKO TRANSFERENTZIAK	3.539	3.797	3.638	-	10.974	-	-
GUZTIRA	20.190	8.348	12.189	1.302	42.029	16.142	3.603



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.15 KONTRATAZIOA

Udalak eta haren erakunde autonomoek formalizatutako 23 espediente berrikusi ditugu: 18, 2019-2021eko aldian eta 5, lehenagoko ekitaldietan formalizatu arren 2021eko aurrekontuan jaso zirenak eta HKEEk lehenagoko fiskalizazio-lanetan aztertu zituenak:

2019-2021EKO ALDIAN ADJUDIKATUTAKO KONTRATUAK Euroak milakotan

XEDEA	ADJUDIKAZIOA			EXEK. 2021	AKATSAK		
	PROZED.	DATA	ZENBAT.		A	B	C
OBRAK							
1. Altzako kiroldergia eraikitzea	PIH	api-19	12.442	11.135			C3
Esped. aldatua: hormigoizko egitura		eka-20	582				
Proi. aldatua: estalkiaren egitura		mai-21	1.575				
Proi. aldatua: eraldaketa-zentroa indartzea.....		aza-21	1.318				
2. Eskuzaitzeta urbanizazioa: separata 7	PIH	ots-20	11.044	5.715	A1	B1	
3. Loiolako zeharbideko hiri-integrazioa: 3 errei.....	PIH	ots-20	5.897	3.220	A1	B1	
4. Iztuetako azpiko pasagunea	PIH	ots-20	5.863	4.310	A1	B1,2	C3
Esped. aldatua: biaduktua eraisteko metodoa aldatzea		ots-22	1.127				
5. Altza kiroldegiko kanpoko igerilekuak egokitzea	PI	uzt-21	1.926	38			
Espediente aldatua		eka-22	(137)				
6. Kontxako horma eta baranda eta mugikortasun-obrak	PI	abu-21	2.559	29			
Esped. aldatua: bidegorria handitzea.....		ots-22	667				
Esped. aldatua: telekomunikazio-sareak eta bestelakoak.....		uzt-22	228				
7. Galtzadako zoladurak konpontzea (2 lote)	AZL	abu-21	435	-			
8. Zurriola pasealekuko kolektorea konpontzea	PI	aza-21	1.603	-			
ZERBITZUAK							
9. Astiñene zubiko obrak zuzentzeko laguntza teknikoa	PIH	ots-19	116	19			C1
Esped. aldatua: epea luzatzea		mar-20	58				
10. Eraikinak garbitzea (3 urte + 9,5 hilabeteko luzapena)	PIH	ots-19 (**)	16.939	7.311			
Esped. aldatuak: zerbitzu-orduen aldaketak		2019-2021	977				
11. Hondartzen garbiketa (9 urte + 1 luzap.).....	PIH	ots-20	(*) 6.318	725		B1	
12. Barandak berritzea eta mant. (urtebete + luzapen 1)	PI	ots-20	(*) 175	175		B1	
13. Aparkaldi arautua (6 urte).....	PIH	mai-20	33.548	6.002		B1	
14. Hondartzetako salbamendua (4 urte).....	PIH	mai-21	2.868	664			
15. Arreta sozioedukatiboa eta psikosoziala (3 urte+ 2luzap.)	PGPN	abu-21	4.323	360			
16. Igeldo tokiko erakunde txiki sortzeko txostena	PI	urr-21	100	11			
UDALAREN GUZTIZKO PARTZIALA			112.551	39.714			
DONOSTIATIK							
17. Kudeaketa elektron. plataform. eremu pribatua garatzea.....	PI	urr-20	199	130	A1		
KIROL PATRONATUA							
18. Zuhazti kiroldegiaren kudeaketa (15 urte).....	PMH	abe-20	14.658	55			
ERAKUNDE AUTONOMOEN GUZTIZKO PARTZIALA			14.857	185			
GUZTIRA			127.408	39.899			

(*) Aleko prezioetan esleitutako kontratuak Esleipenaren zenbatekoa kontratuaren gehieneko aurrekontuarekin bat dator.

(**) Udalarentzat eta mendeko beste erakunde batzuentzat esleitutako kontratua. Adjudikazio- eta egikaritze-zenbatekoak kontratuaren guztizkoarekin bat datoz.



2019 BAINO LEHENAGO ADJUDIKATUTAKO KONTRATUAK				Euroak milakotan			
XEDEA	ADJUDIKAZIOA			EXEK. 2021	AKATSAK		
	PROZED.	DATA	IZENBAT.		A	B	C
19. Eraikinak garbitzea (4 urte + 2 luzapena).....	PIH	uzt-15	53.409	8.004			
20. Kaleetako zoladura mant.-lanak (4 urte + 2 luzap.).....	PIH	api-16 (*)	14.000	3.333			
Esped. aldatua: osasun-zentroet. irisgarritasuna hobetzea....		ots-21	196	191			
Esped. aldatua: Santa Klara uharteko bidea berreraikitzea....		mar-21	178	178			
Esped. aldatua: Aiete parkerako bidea hobetzea.....		abu-21	65	65			
Esped. aldatua: Soldaduen plaza konpontzea.....		abu-21	249	99			
21. Trafikoa kontrolatzeko zerb. (3 urte + 2 luzapen).....	PIH	abu-17 (*)	1.935	674			
22. Astiñene zubia eraikitzea.....	PI	abe-18	3.023	819			C2
Esped. aldatua: pilotreak ordezkatzeta.....		aza-20	591				
UDALAREN GUZTIZKO PARTZIALA			73.646	13.363			
KIROL PATRONATUA							
23. Kirol ikastaroak/eskolako igeriketa (4 urte + 2 luzapena).....	PIH	uzt-18 (*)	5.565	1.587			C3
Esped. aldatua:		ots-20	999				
Esped. aldatua: Altzako kiroldegia irekitzea.....		api-22	94				
ERAKUNDE AUTONOMOEN GUZTIZKO PARTZIALA			6.658	1.587			
GUZTIRA			80.304	14.950			

(*) Aleko prezioetan esleitutako kontratuak Esleipenaren zenbatekoa kontratuaren gehieneko aurrekontuarekin bat dator.

Euroak milakotan		
AKATSAK	ESPED. ZK.	ADJUDIKAZIOA
ESPEDIENTEA		
A1 Proposamen ekonomikoen ausarkeria-atalasean akatsa.....	4	23.003
ADJUDIKAZIOA		
B1 Adjudikazio epean atzerapena.....	6	62.845
B2 Nahitaezko baimena bi.....	1	5.863
EXEKUZIOA		
C1 Kontratuaren xedea aldatzea.....	1	116
C2 Gauzatzeko epeetan akatsak.....	1	3.023
C3 Kontratu aldatzetan akatsak.....	3	23.870

Gainera, 2021eko ekitaldian Udalak gauzatutako beste gastu batzuk berrikustean honako alderdi hauek azaleratu dira:

- Zerbitzuak eman dira mugaeguneratutako aurreko kontratuen hirugarren adjudikaziodunen bidez: ez da kontratu berriaren lizitazioa hasi, lizitazioaren argitalpena mugaeguna baino geroagokoa da edo ez da gutxienez 3 hilabete lehenago egin, honako aldi eta zenbateko hauetan:



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	EPEMUGA	ALDIA	ZENBAT.	Euroak milakotan	
				ARGIT.	ADJUD.
Berdugeneen mantentze-lana.....	19.04.30	abe 20-abe 21	5.167	23.01.13	23.07.18
Kontagailuen irakurketa.....	20.12.31	urt-eka 21	211	20.12.24	21.06.08
Hondakinak jaso eta garraiatzea.....	21.01.02	urt-abe 21	5.614	23.01.03	23.09.26
Kale-garbiketa.....	21.06.30	uzt-abe 21	6.319	-	-
GUZTIRA			17.311		

- Udalak estolderia-sareko garbiketa-zerbitzuan eta konponketa txikietan 1,9 milioi euroren gastua egin zuen 2021eko ekitaldian; kontratu hori 2019ko maiatzaren 31n amaitu zen. Prozedura ireki harmonizatuaren bidez, 2019ko urriaren 26an, hirugarren horri adjudikatu zitzaion zerbitzua, 22,2 milioiko zenbatekoan, 9 urteko iraupenarekin. Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak 2020ko otsailaren 3an baliogabetu zuen adjudikazioa, eta adjudikaziodunaren eskaintza baztertu zuen, baldintza-agirietan eskatutako baldintza teknikoak ez betetzeagatik.

Udalak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen KEAOn ebazpenaren aurka, eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari eskatu zion aurkaratutako ebazpena kautelazko neurriaz eteteko; ordea, 2020ko uztailaren 13ko autoaren bidez ezetsi zen eskaera hori. Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko irailaren 29an, kontratuaren adjudikazioa eta ondorengo prozedura-izapideak etetea erabaki zuen, harik eta EAEANK erabaki bat hartu arte. Nolanahi den ere, KEAOk 2020ko urriaren 15ean Udalari eskatu zion ebazpena betearazteko.

EAEANK, 2022ko urtarrilaren 27ko epaiaren bidez, ezetsi egin zuen Udalak eta hasierako adjudikaziodunak jarritako errekurtsoa, eta Auzitegi Gorenak, 2023ko apirilaren 20an, ez du onartu enpresa horrek aurkeztutako kasazio-errekurtsoa.

- Zuzeneko adjudikazioa kontratu txikiak izapidetuta, batera kontrata daitezkeen gastu jakin batzuetarako:

AKATSAK	Euroak milakotan	
	HIRUG. KOP.	ZENBAT.
11 udal-eraikinetako galdaren prebentziozko mantentze-lanak.....	1	54
Alderdi Ederreko Lehoien lorategia birgaitzea.....	2	76
Proiektua idaztea.....	3	285
GUZTIRA		415



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.16 ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA SOZIETATE PUBLIKOAK

A.16.1 PERTSONALA

Hona hemen pertsonaleko gastuen xehakapena:

	Euroak milakotan					
	Etxegintza EEP	Kultura EEP	Donostiako Tranbia konp.	Hileta zerbitzuak	Donostiako Sustapena	Donostia Turismoa
Soldatak eta ordainsariak.....	1.328	10.163	22.809	484	2.400	1.310
Erretiro aurreratuetatik sariak.....	-	85	232	-	-	-
Gizarte Segurantzaren.....	366	2.698	8.284	144	670	429
Bestelako gastuak.....	71	161	305	7	52	28
GUZTIRA	1.765	13.107	31.630	635	3.122	1.767

Kulturako EEPak bere langileen bitartez beharrezko den laguntza-zerbitzua ematen die mendeko dituen sozietateei, San Telmo Museoa S.A. eta Victoria Eugenia Antzokia S.A., eta 2021eko ekitaldian 2,5 eta 3,3 milioi euroren zenbatekoa fakturatu die, hurrenez hurren.

Enpresa erakunde publiko eta sozietate publiko guztiek beren enplegatuei soldata igoerak eta produktibitate-osagarria aplikatu dizkiete, azken hau guztira 600.000 euro ingurukoa, Udalak egin duen baldintza beretan (ikus A.7).

Hona hemen 2021eko abenduaren 31n plantillaren xehakapena:

	Kopurua					
	Etxegintza EEP	Kultura EEP	Donostiako Tranbia konp.	Hileta zerbitzuak	Donostiako Sustapena	Donostia Turismoa
Goi zuzendaritza.....	1	1	-	1	1	1
Karrerako funtzionarioak.....	-	61	-	-	-	-
Bitarteko funtzionarioak.....	-	3	-	-	-	-
Lan kontratu finkodun.....	14	24	398	8	25	16
Aldi-baterako lan kontr.....	17	162	198	5	26	18
GUZTIRA	32	251	596	14	52	35

Enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea indarrean sartu ondoren, mendeko erakundeetako administrazio-kontseiluek Enplegu Publikoaren Eskaintza bana onartu dute 2022ko lehen seihilekoan, guztira 231 plaza.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.16.2 DIRULAGUNTZAK

Hona hemen Donostiako Sustapena S.A. sozietateak 2021eko ekitaldian emandako laguntzak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ZENBATEKOA	
Lan-kontrataziorako laguntzak-Lanbide	Lehia	1.329
Merkataritzari ezohiko laguntzak, Covid-19.....	Lehia	(*) 679
Talentu Berritzailea programa: gazteak proiektu berritzaileetan kontratatzea	Lehia	(*) 709
Innplanta programa: enpresa-proiektu berritzaileak	Lehia	623
Enpresak sortzeko laguntzak.....	Lehia	349
Ostalaritzari aparteko laguntzak, Covid-19	Lehia	(*) 324
Gureak Garbitasuna SLU: enplegu sustapena.....	Izenduna	349
Bestelako txikiagoak (300.000 eurotik beherakoak)		1.712
GUZTIRA		6.074

(*) Aztertutako dirulaguntzak.

A.16.3 KONTRATAZIOA

Enpresa-erakunde publikoek eta sozietate publikoek formalizatutako 8 espediente aztertu ditugu: 7, 2019-2021eko aldian adjudikatutakoak eta 1, lehenagoko ekitaldian adjudikatutakoa, HKEEK aurreko fiskalizazio-lanean aztertu zuena:

XEDEA	Euroak milakotan					
	ADJUDIKAZIOA			EXEK. 2021	AKATSAK	
	PROZED.	DATA	ZENBAT.		A	B
KULTURAKO EEP						
1. Web ataria garatzea eta mantentzea (4 urte).....	PIH	ots-21	228	48		B1,2
2. Liburutegiko zerbitz. eta lagungarriak (2 urte+2 luzapena)...	PIH	mar-21	(*) 732	186		B2
TRANBIA KONPAINIA						
3. Publizitatearen ustiapena eta markesinen mant. (15 urte)	PNH	eka-19	(**) 9.302	885	A1	
4. Bizikleten alokairuaren kudeaketa integrala (8 urte).....	PNH	eka-20	8.552	668	A1	B2
5. Hiriko 17 autobusen hornidura (4 urte)	PNH	uzt-20	(*) 7.796	4.127	A1	
6. Autobusak desinfek. (6 hilabete + urtebeteko luzapena).....	PI	api-21	(*) 173	192	A1	B2
DONOSTIAKO SUSTAPENA						
7. Energia sortzeko zentroaren ustiapena (15 urte).....	ELH	mar-17	(*) 8.164	369		
8. Gabonetako argiak eta dekorazioa (urte 1 + 4 luzapena).....	PIH	urr-21	(*) 486	486	A1	B2
GUZTIRA			35.433	6.961		

(*) Aleko prezioetan adjudikatutako kontratuak Adjudikazioaren zenbatekoa kontratuaren gehieneko aurrekontuarekin bat dator.

(**) Adjudikaziodunak ordaindu beharreko kanona.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

		Euroak milakotan	
AKATSAK		ESPED. ZK.	ADJUDIKAZIOA
ESPEDIENTEA			
A1	Adjudikazio-irizpideen formuletan akatsa	5	26.309
ADJUDIKAZIOA			
B1	Adjudikazio epean atzerapena	1	228
B2	Hitzarmen kolektibo aplikagarria esleipen ebazpenean ez jasotzea	5	10.171

Beste batzuk

2021ean gauzatutako beste gastu batzuen berrikuspenean, Etxegintza EEPan antzeman da zerbitzu bat ematen dela aurreko kontratuaren hirugarren adjudikaziodun baten bitartez, eta haren lizitazioa epemugaren ondoren argitaratu da, honako aldi eta zenbateko honetarako:

		Euroak milakotan			
		KONTRATU BERRIA		ARGIT.	ADJUD.
	EPEMUGA	ALDIA	ZENBATEKOA		
Etxebizitzetan igogailuen mant.-zerbitzua.....	21.01.31	ots-urr	77	21.03.23	21.09.30
GUZTIRA			77		



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.16.4 ZORPETZEA

Enpresa entitate publikoen eta sozietate publikoen zorraren bilakaera honako hau izan da:

ENTITATEA	Euroak milakotan						
	EMANDAKO ZENBATEKOA	EMAKIDA DATA	MUGAEG. DATA	ZORRA 21.1.1	ALTA	AMORTIZ.	ZORRA 21.12.31
Kutxabank	2.341	2000	2023	404	-	(133)	271
Kutxabank	7.212	2004	2027	2.323	-	(348)	1.975
Kutxabank	3.484	2004	2027	1.259	-	(189)	1.070
Kutxabank	1.262	2005	2027	462	-	(66)	396
Kutxabank	4.552	2007	2030	2.307	-	(233)	2.074
Santander	6.403	2007	2030	3.287	-	(332)	2.955
Kutxabank	9.052	2007	2030	4.898	-	(470)	4.428
Kutxabank	5.188	2007	2030	2.388	-	(229)	2.159
Santander	1.277	2008	2031	718	-	(65)	653
BBVA	6.721	2009	2031	3.904	-	(345)	3.559
BBVA	3.750	2009	2031	2.178	-	(192)	1.986
Kutxabank	7.116	2009	2032	4.145	-	(356)	3.789
Kutxabank	7.145	2009	2032	4.162	-	(357)	3.805
Kutxabank	2.333	2009	2032	1.359	-	(117)	1.242
Santander	4.933	2009	2032	2.894	-	(245)	2.649
Santander	2.861	2009	2034	1.529	-	(108)	1.421
Santander	3.318	2009	2034	1.774	-	(126)	1.648
Santander	4.200	2010	2035	2.775	-	(179)	2.596
Santander	4.831	2010	2036	3.810	-	(174)	3.636
Bankoa	5.816	2011	2034	4.257	-	(294)	3.963
Bankoa	3.750	2013	2033	3.581	-	(136)	3.445
Kutxabank	3.740	2015	2040	3.355	-	(157)	3.198
Kutxabank	16.006	2019	2049	16.006	-	-	16.006
Caixabank	2.417	2019	2036	359	2.058	(49)	2.368
Kutxabank	3.528	2021	2047	-	3.528	-	3.528
ETXEGINTZA EEP GUZTIRA				74.134	5.586	(4.900)	74.820
Sabadell	4.633	2018	2029	3.899	-	(463)	3.436
Kutxabank	3.444	2021	2031	-	3.444	(258)	3.186
TRANBIA KONPAINIA GUZTIRA				3.899	3.444	(721)	6.622
GUZTIRA				78.033	9.030	(5.621)	81.442



ALEGAZIOAK

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

UDALA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK

1. *Udalak eta haren erakunde autonomoek uste zuten 2021eko ekitaldian giza baliabideak arrazionalizatzeko plana onartu aurretik 22 langile publikori ordaindutako erretiro aurreratuagatiko primak (milioi bat euro) PFEZtik salbuetsitako lan-etekinak zirela. Alabaina, ez dira betetzen Langileen Estatutuaren Legeko Testu Bateginaren 51. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak (ikus A.7).*

Udaleko Kontuhartzaitza Nagusiak elkarrizketak izan zituen, 2021 ekitaldi hasieran, Gipuzkoako Foru Ogasunarekin, hura baita pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren administrazio eskuduna. Foru Ogasunak esan zuen Udaleko eta bere erakunde autonomoetako erretiro aurreratuagatiko primak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita zeudela.

Nolanahi ere eta zergaren konturako atxikitzea izanik, langileek, kasuaren arabera, beren zerga egoera erregularizatuko zuten Gipuzkoako Foru Ogasunarekin 2021 ekitaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren likidazioa egitean.

2. *2021eko ekitaldian, Udalak Txofre plazako lurpeko aparkalekuaren zerbitzu publikoaren emakida gauzatzen jarraitu zuen enpresa esleipendunaren bitartez, zeinaren kontratua 2016ko otsailaren 19an amaitu baitzen; kontratazioa arautu zuten pleguetan, baina, ez zen luzapenik aurreikusi. 2021eko ekitaldian ustiapen-kanon gisa aitortutako diru-sarrerak 396.120 eurorenak izan ziren (ikus A.5).*

Aipatu behar da aparkalekuaren egoera, onena izan ez arren, ezin dela legez kontrakotzat jo, jarraian aztertu den Udalak hartutako zerbitzuaren jarraipen erabakiaren izaera ikusita.

2016ko otsailaren 19an, Tokiko Gobernu Batzarrak zerbitzu publikoa jarraitzeko erabakia hartu zuen, kontratu berri bat formalizatu arte. Formalizazio berri hori 2016ko abuztuaren 20aren eta 2017ko otsailaren 20aren gauzatuko zela aurreikusi zen.

Agirien onarpen data ikusita eta kontratuaren artikulua gehigarria bera ikusita, kontratuari aplikagarria zaio 1953ko Toki Korporazioen Kontratazio Erregelamendua (gaur egun indargabe dagoena). Erregelamendu horren 59.2 artikuluen arabera, zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratuaren luzapen behartua erabakitzeko aukera zegoen, interes publikoko arrazoiak zirela medio, 6 hilabeteko eperako gehienez.

Auzitegi Gorenak, 1986ko azaroaren 18ko eta 1985eko martxoaren 25eko epaietan, hau ebatzi zuen: “hau ez da kontratuaren berariazko edo isilbidezko luzapen kasu bat,



berrikusketa baztertzen duen 9. klausularen erabateko aplikazioa izango lukeena, baizik eta ezohiko egoera bat. Egoera horretan, kontratua legez ezarri eta adostutako moduan salatuta, Administrazioak, interes publikoko arrazoiak eta zerbitzuarekin jarraitzeko beharra direla medio eta kontratista berri bat hautatu arte, aurreko kontratistari jarraitzeko beharra ezarri dio modu koaktiboan, Administrazioak “ius variandi” edukiaren ahalmenak baliatzen dituenean gertatzen diren pareko ondorioekin, baina zerbitzu publikoaren kontratistaren edo emakidadunaren nahitaezko konpentsazio ekonomikoaren kontrapartida saihestezinarekin”.

